



Hiburu haec batim gatien

laid a beernaturo gaijo Yoseph

Lusibitz bordaco alabari
etia iquacida bire perus
hinsyoi jagetan

Hendayon Mantshouen
1853m

Veronee meni esus maras

Yosephia Lusibitz

N-5000C9344

ZRV
3363

CANTICA

IZPIRITALAC,

Dembora gucietaco hanitz abantailosac, guehuenac erreberriatuac, eta oraino eçagutuac etcirenez emendatuac.

CANTATE DOMINO CANTICUM NOVUM.

Canta çäue **Cantica** berri bat **Yaincoaren** ohoretan.

149 GARREN PSALMOA.



SALTSEN DA BAYONAN,

CLUZEAU, liburu eta paper marchantaren baithan,
Cilharguin carrican, 4 lumeroan.

1844.



ABISUA.



IMPRIMATU icandire, noizetic noizera, escuarezco Canticac: halaric ere urrunda baitdire erraiteco gucien guericean. Hetaric cembeit bethi huts berekin aguerteen dire, bertce cembeit arrimuric gabe eta moldegaizki dire emanac. Ahal dire oraino bacotch batcu hobeki diotenac corbere sortcea chede laudagarri bati, ecen ez bertsuac edocein gosturekin moldatceco donuari, edo artha corrotcari.

Orai arguitarat emaiten diren Canticac, hala çahar erreberrituac, nola egundaino imprimatu gabeac, ez dire (ikhusia da) perfeccionne ossoan. Lan aski gaitça eta idorra çao hautaz occupaturic heldu denari bertceren obren chuchentcea. Hain nahico ere çuen berac, berri berritan, guciac moldatu; ordean, edireten tu, Cantica çaharren artean, cembeit bakhar hanitz ongui emanac, eta hekien moldatcailei ohore eguiten diotenac; baçao oraino hetaric bertce cembeit, bederen erdi ongui dohazkela, aphurbat correituric. Damuric beraz utcico cirela Cantica çahar guehienac balxatu gabe berrieikin. Diren guciac canta beitez alegueraki gure herriean. Bedi gure Yainco handia laudatua, bihotcez eta errepicaz, bazter gucietan.

AUEIGA

—tumus, attunc sūmunt, vñbilat, vñbile
pñbilat, alimantur ex pñbile, vñbile, ex
vñbile, hñc hñc vñbile, vñbile, vñbile,
vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,

—vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,
vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,
vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,
vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,
vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile, vñbile,

CANTICA

IZPIRITALAC.

I CANTICA.

Izpiritu Sainduaren lagunçac galdetceco.

QATO Izpiritua,
Creatçaile saindua;
Bisita çatçu hotçac,
Othoi gure bihotçac.

Bethe çatçu graciez,
Cerutic egorriez,
Gure adimenduac
Ceronec formatuac.

Contsolatçaile ona,
Icendatcen çarena,
Dohain baliosena
Yaun cerucoarena.

Ithurburu bicia,
Amodio garbia,
Caritate kharxua,
Gantçucari saindua.

Çuc çazpi suertuac
Emaiten berthuteac;
Çu çare eri sendoa
Yaunaren escuoa.

Noizbait çure arguiae
Ignoranten mihiac
Bethe cituen hitcez,
Guciz miragarriez.

Detçan argui gureac,
Arin gogo tristeac;
Bai çure su borthitçac,
Susta gure bihotçac.

Gure gorphutcecoac
Detçan indar flacoac
Borthitz çure graciac,
Bethi sendagarriac.

Egorracu çurea,
Urrun exai dorphea;
Emagucu bakea,
Dohain guciz maitea.

Gutaric batbedera
Guida çacu onera;
Curekim ezdeçagun,
Othoi gaitcic eçagun.

Sinhets deçagun Aita,
Seme guciz puchanta,
Eta Izpiritua
Biez produktua.

Cure arguiz deçagun,
Othoi, ongui eçagun
Yainco eguiazcoa
Bethi laudatcecoa.

Bethi laudorioac
Tuen Aita, Yaincoac,
Seme, hilic phiztuac,
Izpiritu sainduac.

O ! Yauna, fidelenac
Çuc arguitu barneac
Tutçu, lehen, dohainez
Izspirituarenez.

Hartaz beraz gu ere
Gaitçatçu bethiere
Argui cure eguiiez,
Bai contsola graciez.

Egor çacu saindua,
Othoi, Izpirituā,
Eta mundu gacia
Eguinen da berria.

II CANTICA.

Laguntça beren galdea. Aire berean.

ÇATO Izpiritua,
Çato gu laguntcera;
Othoi, çato, yautscaite
Gure bihotcetara.

Yauna, bethe gaitçatçu,
Egun cure dohainez,
Eta gaitçatçu susta
Cure khar bicienez.

Contsolatçaille goço,
Descanxu emailea,
Cu çaitugu penetan
Gure laguntçaillea.

Cu çare, bethidanic,
Amodioa bera

Ossoki ekharria
Gu gucien aldera.
O cembał flakecia
Datçan gure barnetan!
Bici gare, ondicoz
Bekhatuzco gathetan.

Egor dieçaguçu
Çure arraioetaric,
Eta gare ilkhico
Gure ilhumbaric.

Cembał ere baigare
Itçuliac gaizkira,
Gure graciac gaitu
Erakhartcen onguira.

Urrun caçu guganic
Gure exai' gachtoa,
Bethi gure arimen
Galtçerat hari dena.

Bai, Yauna, urrun caçu
Sathan, exai dorphea;
Emaguçu bakea,
Onthasun hain maitea.

Aitarekin Semea
Dela bethi laudatu,
Izpiritu Saindua
Biekin ohoratu.

Içan beite hirurac
Gutaz eçagutuac,
Trinitate sainduan
Guciez maitatuac.

III CANTICA.

Yaincoaren legue saindua. Hainitz aireren gainean.

CANTA arin mundutarrac
Suntsi beite, bet betan,
Sentimendu caltekorrac
Hil beite bihotcetan.
Abia gaiten laudatcen
Erregueen Erreguea,
Balxan, lehiaz, cantatcen
Eman duen leguea.

Ala bai da, Yaun goicoa
Cure legue saindua,
Guciz nahicarazcoa,
Goço eta yustua!
Orötarat du hedatcen
Placeric bicienac,
Descanxuan eçartcen
Penatuac direnac.

O çuec, urguleriac
Ixutcen caituztenac,
Munduco ezdeuskeriac
Bilhatcen tutçuenac;
Onthasunac, ohoreac
Ditutçue preçatcen;
Nic batçu, nola bertceac,
Bozic tut arbuiatcen.

Bake maite bat darraio
Yaunaren legueari,
Cer escasten othe çao
Hartaz dacusanari?
Izpirituac libratcen
Ditu ilhumbetaric,
Bihotçac ere sendatcen
Cauri gucietaric.

Cure legueac, Yaun ona,
Behar gaitu salbatu;
Ez da ceren çoriona
Bertce nihon bilhatu.
Guidariric çuburrena
Badakit hora dela,
Hari yarraikia dena
Ez daite errebelia.

Legue harren uztarria
Errech da yassaitea,
Ez, ez da nekhagarria
Harren carga maitea.
Yartcen naiz harren azpian,
Hartaz naiz guidaturen;
Hora dut bici gucian,
Bakharrie maitaturen.

IV CANTICA.

MUNDUAREN ARBUIOAZ.

Aire hunen ginean : Pour passer doucement la vie.

HAU da gure ixumendua !
Cerc gaitu bada çoratcen ?
Ahantcirie salbamendua,
Mundua dugu maitatcen.

Lurreco cargu, ohoreac
Dire ephe gutitaco ;
Hango içaite fagoreac
Çaizkit khearen pareco.

Arrosa, arantce gaberic
Ez ahal da nihon sorthu ;
Ez eta munduko placeric,
Khirexic gabe guerthatu.

Onthasun galcor batçuent-
zat,
Ez gaitu Yaunac creatu ;
Sainduki bici direnentzat
Bertceric du aldaratu.

Cerua da dohaxutasun
Yustuari aguindua.
Oi ! cer çorion, cer onthasun
Içaitea salbatua !

Bethi libro doloretaric
Daude Ceruan yustuac,
Bethi bazter gucietaric,
Loriaz inguratuac.

Nonbeit ongui maitagar-
ria

Bide çare, o Cerua !
Cu çare sainduen herria,
Placeren ithurburua.

O ! Egoitça çorionezco,
Guciz goço, berecia ;
Ala çure ganat heltceco
Ongui baidut guticia !

V CANTICA.

MUNDUCO GAUCEN ESDEUSTASUNAZ.

Aire huntan : *Sombres forêts, etc.*; edo huntan : *Itçul hadi, itçul bekhatorea.*

MUNDU çoro tromperiaz bethea,
Iduki nauc, ondicoz ! gathetan ;
Lausengari, enganakor tristea ,
Atceman nauc, eta cembatetan !

Lore pean arantceac gorderic,
Sar araci nauc hire saretan ;
Hire baithan sobera fidaturic ,
Erori nauc asco bekhatutan .

Non cen bada neure adimendua ,
Bicitcean placer galkorretan ?
Ikhusten dut ene çoramendua ,
Eta nago auhen minenetan .

Ixumendu ecin ahantcizcoa !
Salbatzecotz içan naiz creatu ;
Eguiteco gucien gainecoa
Nola bada, dut, trebes, largatu ?

Ez balitz placeric baizen enetzat ,
Tronuraino banintz alchatua ,
Hauc guciac ez nituzke deusentzat ,
Egun batez banintz damnatua .

Ceru, lurren, gucien Erreguea ,
Salbatceco behar dut bilhatu ,
Guidaritzat hartu harren legeua ,
Bekhatua urrikiz borratu .

Gostaia naiz çure odol garbia,
 Hustu duçu, nahiz ni salbatu;
 Çor darotçut, Yauna, bihotz gucia,
 Nahi çaitut nic ere maitatu.

VI CANTICA.

Innocentian denaren gorionia.

ALA baida dohaxua
 Innocentian dena,
 Nihoiz bere descanaxua
 Ecin galdeçakena !
Munduac bere placerac
 Alferric tu laudatcen ;
 Barneco bake harc berac.
Guciac tu garhaitcen.
Yaunari bihotz garbiac
 Choil çazco agradatcen.
 Haren behatce eztiac
 Tuste bere ganatcen.
Ala bai ditu maitatcen
 Notha gabe direnac !
Cerura ditu guidatcen
 Hartaz dacusatenac.
Yauna bedi laudatua
 Dembora gucieta,
 Beregainki maitatua
 Egun ederrenetan.
Çuec beraz, o gasteac,
 Emotçue Yaunari

Hastapeneco urtheac,
 Yarraikiz ceruari.
Cuen adin samur hori
 Lesser da iragana;
 Lore flaco bat diruri
 Betan suntsitcen dena :
 Ikhusico dute sortcen
 Eta, guehienean,
 Arras histuric erortcen
 Egun harten berean.
Çuec, horçabiltçatenac
 Munduari yossiac,
 Bekhatuari emanac,
 Iduri nahassiac ;
 Nihon placer funxezcoric
 Ex duçue causitcen,
 Nihon ez baida bakeric
 Innocentian baicen.
Cer du bada bekhatuac,
 Cer du maitagarriric ?
 Haren gathetan sarthuac
 Non duke sosseguric ?

Helas! bicida lurrean
Barneco tormentetan,
Eta da, hilcen denean,
Erretcen su lametan.

Maria, Biryina saindu,
Bethi garbi çarena;
Munduan duçu higuindu

Bekhaturic chumeena :
Çuc, othoi, gaitçatçu la-
gun
Higuintceco gaizkia ;
Eguiçu maita deçagun
Yainco maitagarria.

VII CANTICA.

Bathaioco graciaren gainean.

Ez dakit cergatic
Beldurrac harturic,
Cerc nauen hula herstu ;
Yauna dut nerekin
Bere graciekin
Eta nago, eta nago, eta
nago muthu.

Mendiec, içarrec,
Eta ixas basterrec
Ez dute ichiltceric;
Haren ohoratcen,
Lehiaz laudatcen,
Hari dire, hari dire, hari
dire bozic.

Nic guciataric,
Eta guehienic
Dudalaric cer mintça,
Haren laudatceco
Eta ohoratceco
Betan dohat, betan do-
hat, betan dohat bitça.

Haren fagoreec,
Dohain bereciec
Ez dute mugarriric :
Hekien preçatceco,
Aski eçagutceco
Ez da bera, ez da bera,
ez da bera baicic.

Cembat gaitcetaric,
Eta irriscutaric
Ez nau ni harc beiratu !
Miletan ninteken,
Biciric banuen,
Yakin gabe, yakin gabe,
yakin gabe galdu.

Sorthu beçain sarri,
Ican nau urricari,
Eta nau fagoratu.
Harc nau, ordu hartan,
Bere bessoetan
Bathaioan, bathaioan,
bathaioan hartu.

İcarrac ceruan,
 Bere ederrenean
 Ahalcatuco ciren,
 Niri behatceaz,
 Eta ikhusteaaz
 Cein ederra, cein ederra,
 cein ederra nintcen.

Yesusen biciaz,
 Haren yusticiaz,
 Nuen içarniatcen :
 Ceruez gorago,
 Ainguerutaraino,
 Ikhussia, ikhussia, ikhus-
 sia nintcen.

Hambat bertcetaric
 Balzan sorthutaric
Yaunac ni nau bereci !
 Ene creatcea,
 Ene eroztea,
 Ez citçaion, ez citçaion,
 ez citçaion azki.

Patutan ordutic,
 Enekin sarthuric,
 Çitçaitan obligatu ;
 Guerocotz graciez,
 Bere arraiciez,
 Cautan eman , cautan e-
 man, cautan eman escu.

Bainan adinera ,
 Eta eçagutçarat
 Ethorri beçain sarri ,
 Nic, ene aguintçac ,
 Ene hitz emanac ,
 Darozkitçut , dorozkit-
 çut , dorozkitçut hautsi .

Baieki, ene Yauna ,
 Nic bekhoki hura
 Haurretic içatu dut ;
 Ikhusten nauçula ,
 Oihuz çauzkidala ,
 Nic cu utci , nic cu utci ,
 nic cu utci çaitut .

VIII CANTICA.

Yaincoa ganat itçultcen da bekhatorea.

CURE gana, Yauna ,
 Ene yabe ona ,
 Itçultcen naiz bihotcez ;
 Cu gabe , lurrean ,
 Bethi gaizkipean ,

Ibilinaiz , ibilinaiz , ibili-
 naiz trebes .
 Iragan bicia
 Bekhatuz gucia
 Bethea , ikhusten dut ,

Hetaz ixuturic,
Bidetic ilkhiric,
Nic çu galdu, nic çu gal-
du, nic çu galdu çaitut.

Gachitoki munduac
Gueçurrez hantuac,
Itehiki nau yossiric;
Harren sinhesteaz,
Hari obeditceaz,
Ez dut segur, ez dut se-
gur, ez dut segur onic.

Elhurraren pare,
Nairraioric gabe,
Nuelaric arima;
Lepra huts eguinic,
Ezcaldaz betheric,
Ez dut norat, ez dut no-
rat, ez dut norat beha.

Ah! mundu tristea,
Hau duc ondorea
Emaiten dautacana !
Hire golardoa,
Bethi orhoitcecoa,
Seculaco, seculaco, se-
culaco pena.

Axeguin banoac,
Ohore faltsoac,
Cohazte ene ganic;
Non ez dudan Yauna,
Ene onthasuna,
Ez çarete, ez çarete, ez
çarete deusic.

Ene beguietan,
Oren gucietan,
Hemen çaituztet bethi ;
Ene enganatcea,
Nitaz nausistcea,
Ez çaitçue, ez çaitçue, ez
çaitçue azki.
Ene hiragarri,
Eta akhabagarri,
Ez duçue pausuric
Non ni ez nauçuen,
Bethicotz ikhusten,
Ifernuan, ifernuan, ifer-
nuan hilic.

Ah ! dohacabeac,
Ene galtçaiileac,
Orhoituco nauc ongi ;
Cuen escuetan,
Cuen gatheetan
Egoiteaz, egoiteaz, egoi-
teaz finki.

Nic orai artean,
Ene bicitcean,
Cer bidegabe ez dut,
Arguiac, graciac,
Demborac, guciac,
Betan galdu, betan gal-
du, betan galdu ditut.

Deusere hetaric,
Obra onetaric
Gloriacotz ez duket;
Othoitçac; amoinac,

I. Iagán onguiac , Bethi alfer, bethi alfer, bethi alfer tuzket.	Agueri da clarki Cein dohacabea Ene bicitcea
Yaunac non ez nauen Urricari içaiten ,	Içanen den, içanen den, içanen den bethi.

IX CANTICA.

Yaincoaren hamar manamenduac.

Asco aireren gainean.

I. *Yainco bat adora çatçu, etc.*

YAINCO yauna behar duçu bakharric adoratu ,
Gauça guçien gainetic hura bera maitatu ;
Hura da gure Yabea , gure Creatçailea ,
Salbatceco behar diren gracien emailea.

II. *Yuramenturic ez duçu eguinen, etc.*

Yaunaren icen saindua bədi ohoratua ,
Errespetu handirekin ikharan aiphatua ;
Borthizki tu gastigatcen saindutasuna denac
Arinki yuramentuac eguiten dituztenac.

III. *Igandeac beguirea çatçu, etc.*

Igandeac behar dire arthoski beguiratu ,
Beretzat ditu Yaincoac , bethitic aldarako ;
Egun hec iragan beitez haren lorificatcen ,
Sainduki gure bihotçac haren ganat altchatcen.

IV. *Aita, Ama ohora çatçu, etc.*

Yaincoaren nahia dà burhasoac detçagun
Ekhar errespeturekin , behar orduetan lagun .
Oi ! cer bihotz gogortasun hec ez ohoratcea ,
Hambat çor diotegunac ez cinez maitatcea !

V. Nihor obraz hilen ez duçu, etc.

Ez duçun nihoiz herraric lagunaren alderat,
Bethi çaren ekharria exaien onhesterat.
Gaizki guciac, cin cinez, behar tutçu barkhatu,
Elkhar, haurride beçala, behar dugu maitatu.

VI. Paillardiça eguin enez duçu, etc.

Axeguin lohi guciac urrun çatçu cu ganic;
Maita çacu modestia, bihotcez orai danic.
Oi! cembañ arima gacho diren bethicotz galtcen,
 Berthute maitagarri hau ceren duten colpatcen.

VII. Bertcerena ebatzico ez duçu, etc.

Lagunaren onthasunaz etçare yabetuco,
 Nori berea dioçu çucenkibihurtuco;
 Bertcela, exi çacu arima salbatceaz,
 Mundu huntaric lekhora, ceruaz goçatceaz.

VIII. Lekhucotasunic ez duçu eguin enez faltsuki.

Behar çare lehiatu eguiaz mintçatcera,
 Lekhucotasun faltsutan nihoiz ez erortcera;
 Eguia bera den Yaunac horrela du aditcen,
 Eguna batez, yakin en du gueçurraren punitcen.

IX. Bertceren esposic, etc.

Amodio contracoric ez duçun bihotcean,
 Ez duçu behar maitatu baicic Jainco leguan,
 Ohora eta beguira çacu garbitasuna.
 Berthute, bake goço bat emanen datçuna.

X. Guticia içan enez duçu, etc.

Ez çaizcó behar bekhaiztu bertceren onthasunari,
 Ez ekhar inbidiaric lagunaren onari;
 Guti baduçu, gutiaz çare contentaturen,
 Eta diotçu Yaunari eskerrac bihurturen.

X CANTICA.

Eliçaren manamenduac.

I. Meça saindua entçun çäcu, etc.

IGANDETAN hurbil çaité meçaren entçutera,
Sacramendu handi hartan Yesus adoratcera;
Sainduen beztac orobat tutçu beguiratuco,
Heien exemplu ederrez çare progotchatuco.

II. Bekhatuac confesssa çatçu, etc.

Urthean bederen behin çare confessatuco,
Çure bekhatu guciаc ditutçu aithortuco.
Oi ! ez gueldi behin hartan, ithurri sacratura,
Çohaci guehiagotan, bihotça garbitcera.

III. Bazcoz bederen gorphutz saindua, etc.

Amodio kharxu batez çarelaric bethea,
Érrecibituren ducu çure Yesus maitea;
Bederen urthean behin, Bazcoco egunetan,
Ducu communiatuco, çure çorionetan.

IV. Gartha biyiliac, etc.

Eguinen tutçu barurac gartha biyilieta,
Orobat gariçumaco egun seinalatuetan;
Behar tutçu mundu huntan bekhatuac borratu,
Penitentciaren bidez behar çare salbatu.

V. Ortcilarean yanen ez duçu, etc.

Ez da yanen haraguiric edocein egunetan,
Hala nola, ortcilare eta larumbatetan.
Premia gabe manu hau hausteco ausartcia
Da Yaunaren beguietañ gaizki punigarria.

XI CANTICA.

Yaincoaren eta lagunaren alderaco amodiaoa.

YAUNA eguin çare guïçon
Amodioac garhaituric;
Eta guc mereci gaberic,
Bethi çare guretçat on.
Ene biotza da bozten
Ceren ongui gaitutçun, lehenic
Maitatu, Cerutic lurrera yautsiric.
Orai, nic, ordainez, cinez çaitut maitatçen.

Ha! cer ona! cer placera
Çuri yarraikitcea bethi!
Çure gatic nahi dut bici,
Çu çare çu ene desira.
Norc etçaitu behar maitatu?
Bihotz onez maite çaituenac
Ya goçatcen ditu eguiazco onac.
Yauna, çu maitatuz behar gare salbatu.

Çure bethi maitatcean
Dago sainduen coriona;
Placeretan den handiena
Dago çu cerbitçatcean
Amodio sacratu batez
Eguin nahi dautçut gorthea.
Cer daite ceruan dohaxu içaitea,
Deus ere, baicic çu maitatcea, cinez?

Bai, ene ahal guciac,
Yauna, darozkitçut escaintcen.

Cure ganat nau erakhartcen,
 Ene amodio handiac.
 Gaitutçunaz gueroz manatcen
 Maitatcerat proximo laguna,
 Ez deçaçuke ongui baicic mana,
 Orai beretic dut, bihotz onez, maitatcen.
 Anaia dudan beçala,
 Arraiki diot behatuco ;
 Bethi diot eracutsico ,
 Eguiaz maite dudala.
 Bainan , nola gure ahaletan ,
 Ez bai gare flakecia baicic ;
 Cu gabe , ez baidugu , deusentzat indarric :
 Khondaturen dugu , Yauna , cure aguinctetan.

XII CANTICA.

Lau azken finen gainean.

Ah ! guiçona , bici haiz ixutua.
 Urruntcen haiz Yaunaren leguetic ;
 Azken finac , uztecotz bekhatua ,
 Galdu behar ez dituc gogotic .
 Hil behar haiz : cer duc seguragoric .
 Hori dioc çor herioari ;
 Ethorrico çaic , hic ustecaberic :
 Emoc hori hire buruari .
 Içanen haiz , hil eta yuiatua
 Yainco Yaunaz ; ordean yustuki .
 Cer çorigaitz , ez baduc bekhatua ,
 Higuinduric , largatu ossoki .
 Berehala yuie mendecariac

Çabalduren dic suzco lecea :
 Han beharco tuc tormenta guciac
 Bethi yassan , o corthe dorphea !

Hala hala , sainduki bicitcerat ,
 Yaun goicoac hau saristatuco ;
 Helduren haiz escuin alderat :
 Ceruaz haiz bethi goçatuco.

Hil , yuiatu , galdu edo salbatu
 Beharco haiz , egua tristea !
 Hire ona nahi baduc aurkhitu ,
 Bilha çac hire Yaun maitea.

Bere besoac darozkic çabaltcen :
 Aita bat duc , norc erran cein ona !
 Has hadi , bihotcez , haren maitatcen ;
 Hori duc harc galdetcen duena.

XIII CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

Aire huntan : *Quand les trois Mages reparurent dans leur pays ! Edo : Quoi ma voisine, etc.*

GUIÇONA , non duc çuhurtcia ?

Cer , ez dakic

Ez dela deusere bicia

Khe bat baicic ?

Higuinçac , bihotcez , mundua

Orai damic ;

Herioa duc hurbildua

Hire ganic .

Mundutar , placer çoratutan

Hondatua ,
Gauęa bat bedi hire baithan
Fincatua ;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean ,
Bihar beretic haitekela
Lur barnean .
Aberaxa , hire diruac
Hau ixutcen ,
Aguintça falsoez munduac
Hau coratcen .
Ah ! has hadi enganioaz
Ahaltcatcen ,
Bai eta funxki herioaz
Beldur hartcen .
Gazte çoro , occupatua
Aphainduraz ,
Ocupa cac izpiritua
Sepulturaz :
Herioa banitateaz
Duc trufatcen ,
Urguilhusen hatcemateaz
Duc dostatcen .
Tratulari , intres gosea ,
Deusec ere
Mundu huntan ecin asea
Behinere ,
Sarri phutçu bac çaic emanen
Egoicatzat ,
Bi braęa lur dituc içanen
Onthasuntzat .
Laboraria , alferretan ,

Haiz nekhatcen ,
Maiz herioa duc , bet betan ,
Gu ganatcen.
Hacilian eguiteco lanac
Tuc hiretçat ,
Eta fruitu heldu direnac
Primuentçat.
Marinel , hambat hersturetan
Habilana ,
Laster haiteke uhinetan
Hatcemana :
Ur pean edo leihorrean
Haiz galduco ;
Bicia çaic , muga denean ,
Escastuco.
Bat etçaio herioari
Itçulico ,
Çorroski dio bakhotchari
Yaçarrico ;
Badaramatça Erregueac
Tronuetaric ,
Hain errechki nola pobreac
Çokhoetaric.

XIV CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

Aire hunen gainean : *La Musette des Marais.* Edo hanitz bertce aireren gainean.

CER dire gure egunac ? Cer da gure bicia ?
 Itçalaren pare dire : non dugu çuhurcia ?
 Axeguin iragankorrei bihotça largatceaz ,
 Akhabo da laster gutaz ; orhoit gaiten hiltceaz .

Hobira gare hurbiltcen, sortcen garen ordutic ;
 Herioac , gure bortcha , garamatça mundutic ,
 Baratcetaco loreac histen diren beçala ,
 Hola da gure bicia suntsitcen berehala .

Oi ! ez dugu ceren erran gazte , sendo garela ,
 Herioa gure ganic oraino urrun dela .
 Sarri lur barnean daite bici uste duena ;
 Norc daki noiz içanen den gure azken orena ?

Herioàc nihorc ez du münduan urriçari ;
 Bakhotchari nahi dio , bere mugan , yaçarri ;
 Chumeac eta handiac ditu bere ganatcen ,
 Guciac , arte laburrez , herrautsetan eçartcen .

Cerentzat quintuzke beraz munduko fagoreac ?
 Laster utci behar diren onthasun ohoreac ?
 Arbuia deçagun lurra , eta bilha cerua ,
 Han du bakharric aurkhitcen bihotçac descaxua .

Sainduki hil nahi duenac loriarat heltceco ,
 Utci behar du gaizkia onguiari lothececo ;
 Hori bera du manatcen Yaun onaren legueac ,
 Lurreco printce , monarka , gucien Erregueac .

Yaincotiarac ez ditu hil beldurrac loxatcen,
 Badakite, hil orduco, direla ceruratcen;
 Cembat ere herioac beguia bai du larri,
 Ongui bici direnentçat ez da ikharagarri.

Cer çorte erdiragarri bekhatuan hiltcea!
 Cer corigaitz! cer calte min arimaren galtcea!
 Beguira gaitçatçu, Yauna, heriotce gachtotic,
 Eternitate gucian erretcen egoitetic.

Yainco adoragarria, Aitaric hoherena,
 Entçun çäçü çure Seme gure gatic hil dena;
 Gracia eske dagotçu gueretçat gurutcean:
 Arren fagora gaitçatçu gure heriotcean.

Ondicoz! mereci tugu gastigu garratcenac.
 Othoi, ahantz bekizkitçu, Yauna, gure hobenac.
 Hel çakizkigu, Biryina, gure behar orduetan,
 Guciz, o! Ama maitea, hiltceco orenetan.

XV CANTICA.

HERIOTCEAREN ORHOITÇAPENAZ.

CUEN heriotceaz fudxki orhoitcerat,
 Lehia cintezkete ongui bicitcerat;
 Muga lazgarri hora datça hurbildua,
 Halaric ez duçue higuintcen mundua.

Placerac, onthasunac tutçue maitatcen,
 Cuen gogo gucia hetan da baratcen;
 Hec utciric bertcerentzat, gutien ustean,
 Aurkhituren çarete lurraren barnean.

Ethorri beçain sarri hiltceco orena,

Orén sainduac berac lazten dituena,
 Yuie ikharagarri, ordean yustuac,
 Nahico tu punitu çuen bekhatuac.

Ez da ceren orduan laguntça bilhatu,
 Hauço, ahaidetarat oihuz abiatu;
 Ez du nihorc içanen urricalmenduric,
 Etcaitçue emanen contsolamenduric.

Exitu beharco da ceruco graciez,
 Baita mundu huntaco fagore guciez;
 Çuen barkhamendua, nigar marrasketen,
 Galdeguinen duçue, bainan alferretan.

Çuen obra guciac dire aguertuco,
 Balentça cucenetan dire phisatuco:
 Onguiac içanen du, saritçat cerua,
 Gaizkiac, gaztigutzat, Ifernuco sua.

Batbedera, balimba, nahi da salbatu,
 Saindu, Saindac beçala loriaz goçatu:
 Hekien çorionerat heltceco bidea
 Da bakharic Yaun ona cinez maitatcea.

Decagun beraz maita sainduen Saindua,
 Eta higuin, bihotcez, bethicotz mundua.
 Oi ! ez bekigu ahantz hil behar garela,
 Ceruco erresuma yustuentçat dela.

XVI CANTICA.

Gurutcearen bistan bekatorearen sentimenduac.

¶ Yesus ! gurutcera
 Ni gatic igan çarena,

| Ene gastigatecera
 Maiz beharteen çaitudana,

Orai, çure aldera	Egotu naiz laçoki ,
Bihurcen naiz, Yainco ona,	Enganatua münduaaz ;
Ah ! orhoit çaité odola	Orai , yoanen naiz bethi
Enetçat eman duçula.	Onguiian aitçinatuz.
Çure amodioac	Ah ! orhoit çaité odola
Ezbanau, Yauna, salbatcen,	Enetçat , etc.
Ene bihotz gaichtoac	Sobera tut maitatu
Sutara nau condenateen :	Munduco erhokeriac ;
Cure yuiamenduac	Berant tut eçagutu ,
Borthitzki nau ikharatcen.	Haren traïdorekeriac.
Ah ! orhoit çaité odola	Nahi naiz conbertitu ,
Enetçat , etc.	Indatçu çure graciac ,
Behar nuen bicia	Ah ! orhoit çaité odola
Eman Creatçailearl ,	Enetçat , etc.
Eman diot gucia	Hambat duçu pairatu
Gachtoki creaturari.	Ene gatic gurutcean !
Ixumendu handia !	Nola tuzket maitatu
Ifernua duc mereci.	Axeguinac mundu pean .
Ah ! orhoit çaité odola	Nahi naiz gambiatu :
Enetçat , etc.	Urriki dut bihotcean .
Deithu nauçu eztiki	Ah ! orhoit çaité odola
Cure gracia sainduaz ,	Enetçat eman duçula.

XVII CANTICA.

Nola behar gaizcon Yesusi yarraiki.

Oi ! cein diren doha-
xuac,
Béthatutic urrunduac ,
Berthutez berreguinduac
Bici direnac ;
Salbatcea gatic ,
Yesus bihotcetic ,
Gucien gainetic ,
Maite dutenac.

Oi ! non da caritatea ,
Non eguiazco fedea ,
Khar fidantciaz bethea ?
Urrun gu ganic.
Fedeaz bicitcen ,
Onguiian fineatcen ,
Gare abiatcen ,
Yauna , gaur danic.
Cer erran garbitasunaz ,

Hambat maitatu duçu-
naz ,
Hain guti maitatcen de-
naz ,
Dembora hautan ?
Berthute maitea ,
Biryimen lorea ,
Biz bethi gurea
Menderen mendetan.
Cer da berriz maitat-
ceco ,
Bereciki bilhatceco ,
Gucjec besarcatceco ,
Unionea ?
Elkarri behatuz ,
Gaizkia barkhatuz ,
Exaiac maitatuz ,
Dugun bakea.

O ! Yesus, esti çarena ,
Escolaric çuhurrena ,
Emaiten darocuçuna ;
Ikhlas deçagun ,
Gaizkitic urruntcen ,
Çu ganat hurbiltcen ,
Çuri Yarraikitcen :
Gaitçatçu lagun .
 Oi ! cein den çorte
 tristea
Munduari behatcea ,
Hango placeren hartcea
Dut eçagutcen .
Bakharrie çu , Yauna ,
Ene çoriona ,
Galdetcen duçuna ,
Çaitut maitatcen .

XVIII CANTICA.

CONTIENTCIAREN EXAMINA.

Aire hunen gainean : *Pour passer doucement la vie ;*
Edo huntan : *Réveillez-vous , etc.*

HUMILKI çaitut adoratcen ,
Ahuspez çure oinetan ;
Yauna , çuc nauçu fagoratcen
Behar ordu gucietan .

 Orai , eguidaçu gracia
Bihotçaren çundatceco ;

**Han den phoçoin gaichto gucia
Lehen bai lehen khentceco.**

**Ikhus detçadan ene faltac
Othoizten çaitut , Yaincoa ;
Eta heien ikhuste clarac
Trista biecat gogoa.**

**Hurbildic examinatcerat
Eguin ditudan gaizkiac ,
Milaca çazkit aitcinerat
Heldu neure flakeciac.**

**Gogoz , obraz , orobat hitcez ,
Hautsi tut çure manuac ;
Itchurazco bere placerez
Enganatu nau munduac.**

**Oi ! urrical nakiçu , Yauna ,
Higuintcen dut bekhatua ,
Bakharric ceren çaren ona ,
Ez , ceren den Ifernua.**

**Leyalki dut beguiratuco
Orotan çure leguea ;
Ez naiz handic aldaratuco ,
Hori da neure chedea.**

**Cembañ diren urricaltceco
Gaizkian daudecenac !
Hekientçat daude seculaco
Tormenta latzgarrienac.**

**Cer çuhurtcia orhoitcea
Ifernuko suzco kharrez !
Ceruaren merecitcea
Urrikiaren nigarrez.**

XIX CANTICA.

BEKHATUAREN URRIKIAZ.

Aire hunen gainean : *J'ai péché dès mon enfance.*

CURE contra naiz altchatu,
 Ceru lurren Nausia ;
Cure contra naiz harmatu :
 Hau da atrebentzia !
 Oi ! nola , oi ! nola
Mundu huntan contsola ?
 Galdu dut inocentzia ,
 Orhoitceco caltea !
 Harekin bake gucia ;
 Hau da neure corthea !
 Oi ! nola , etc.
Bathaioac Yaincoari
 Ninduen consecratu ,
 Bainan laster exaiari
 Bekhatuac libratu.
 Oi ! nola , etc.
Nintceneco Bathaiatu ,
 Oren hartan berean ,
 Ah ! ochala banintz sarthu
 Hil gogorra lur barnean !
 Oi ! nola , etc.
 Aldarearen oinetan
 Eguin tudan botuac
 Ene hobenez, miletan,
 Dire osticatuac.
 Oi ! nola , etc.

Cer ez duçu , çuc enetçat
 Eguin , Yesus maitea !
 Noiz icanen naiz cureçat
 Ecaguicaz bethea ?
 Oi ! nola , etc.
 Tresor guciz berecia
 Ez dut aski preçatu :
 Yauna , dut cure gracia ,
 Ondicoz ! arbuiatu.
 Oi ! nola , etc.
 Damuz , urrikiz çaurtua
 Heldu naiz cure gana :
 Içan bedi borratua
 Bicitee iragana.
 Yaun ona , Yaun ona ,
 Ah ! ez ni abandona.
 Ene arima gaichoaz
 Duçun urricalmendu :
 Ené bicitce gaichoaz
 Oi ! othoi , barkhamendu.
 Yaun ona , etc.
 Cin cinez naiz gambiatcen ,
 Bai , memento beretic
 Cureçat naiz declaratcen
 Bihotçaren erditic
 Yaun ona , etc.

XX CANTICA.

Yaincoac deitcen du bekhatorea bere gana.

ITCUL hadi , itçul , bekatorea ,
 Yainco Yaunac deitcen hau arraiki ;
 Estima çac hitaz duen galdea ,
 Eta emoc bihotça ossoki.
 Bethi ere hire huts gucietan
 Eguin dauyat , pietatez , oihu ,
 Ene gana , deithu haut hambatetan ,
 Bainan hago gor eta muthu.

Cer da , errac , nic eguin ezdudanic
 Hi gaizkitic guibelarazteco ?
 Hambat argui içan duc ene ganic :
 Hauc guciac , hi ceruratceco.
 Ceren gatic nauc bada offensatcen ?
 Naski , guciz ona naicelacotz.
 Hain gogorki cergatic nauc tratatcen ?
 Ez nauc maite , maite haudalacotz.

Bicitce hau ez duc ametx bat baicic ,
 Hil behar haiz eta noiz et dakic.
 Ez daroat nic aguindu gueroric ,
 Ez asteric , ez eta orenic.
 İçanen haiz egun batez ceruan ,
 Edo dukec bethico çorthea
 Tormentetan , supean , Ifernuan ,
 Eta ez duc gogoan hiltcea !

XXI CANTICA.

Bekhatorea itçultcen da Yaincoa gana.

HUNA, Yauna, ardi bat galtcen cena,
Ez bacindu içan urricari ;
Çure ganat, o ! ene Artçain ona ,
Graciac du egun erakharri.

Mundu pean ondicoz ! nintcen galtcen ,
Eta bici nintcen aleguera ;
Bainan non da , oi ! Yauna, çutan baicen
Eguiazco bihotcen placera ?

Ikhusten tut ene erhokeriac ;
Hanitz aldiz çaitut offentsatu.
Barkha çadatçu ene hoben guciac ,
Urrikiaz nahi tut borratu.

Hirritatu dut maiz çure colera ,
Çure contra altchatcen nintcela.
Nola atrebi çu ene Aita deithcera ,
Erraitera , çure umia naiçela ?

Helas ! Yainco , guciz ona carena ,
Berant çaitut , gauça gucien Yauna ,
Mundu huntan eguiaz maitatu.

Çure ganic , ez penec , ez placerec ,
Ez naute nihoiz urrunduren ;
Ez hiltceco herstura handienec
Çu laudatcetic guidelaturen.

XXII CANTICA.

Bekhatorea nahi da conbertitu.

OTHE da deus necessario denic
Mundu huntan baicen salbatcea ?
Ez ahalda halaco corionic
Nola ceruetara heltcea.

Mintça çaité , Yaun ona , hemen nago
Ekharría çure entçútera :
Çure nahiac tut complitu gogo ,
Othoi , çato ene borthiztera.

Uzten ditut guciac çure gatic ,
Ecin duket çu gabe placeric ;
Amodioz çabiltça sustaturic
Ene bilha , cerutic yautsiric.

Urrun beraz ene ganic mundua ,
Ez eznatçaic nihoiz yarraikico ;
Eguin dut orai ene hautua ,
Yainco Yauna bethi maitatceco.

Gurutceac , aithortcen dut , tudala
Ene faltaz orai merecitcen ;
Bainan guero badakit dituela
Penatuac Yaunac khoroatcen.

Ikhusten dut cerua çabaldua ,
Han behar naiz , egun batez , sarthu.
Largatcen dut , bihotz onez , mundua ,
Baitezpada nahi naiz salbatu.

Errebekit bihotça çure suaz ;
Ah ! indaçu çure sokorria ;
Arnegatcen dut Yaun ona , munduaz ,
Içaiteco ceruco loria.

XXIII CANTICA.

BEKHATOREA CONBERTITCEN DA.

ALA ni bainaiz dahocabea
Yaincoaren offentsatceaz ;
Sathan guidari hartceaz ,
Ene corthearen tristea !
Sathan guidari hartceaz ,
Guisa hortan cerua galtceaz !

Ez dut ez galdu choilki cerua ,
Eta Ifernua merechitu ;
Neure Yaincoa dut galdu ,
Neure salbatçaire amulxua ,
Haren contra naicenean alchatu.

Orai dut , orai , eçagutçen
Ene gaizkien malecia ;
O ! Yainco maitagarria ,
Guciac orai tut higuintcen ;
O ! Yainco maitagarria ,
Bihotcetic indaçu urrikia.

Orai , Yauna , norc emanen dauzco
Ene adimenduari indarrac ,
Ene beguier nigarrac ,
Ene bihotçari khar asco ,
Ene beguier nigarrac ,
Hor litezke , hor ene placerac.

Cer duçu niganic igurikitcen ?
Cer guelditcen çaut eguiteco ?
Ekharría naiz aurkhitcen
Ger nahi den pairatcerat ,

Ekharría naiz aurkhítzen
Hedatececo guero loriarat.

Ez çaitut berriz offenstatuco
Seculan , o ! Yainco maitea ,
Miletan lehen hiltcea ;
Bethi çu çaitut maitatuco ;
Miletan lehen hiltcea ,
Ecenez çu berriz galtcea.

XXIV CANTICA.

*Yesusen amodioaz eta ikerusminez sustatua den bihotçaren
hatsgorapenac.*

AZKENECOTZ çure gana , Yesus , ene bicia ,
Amodioac dakhárke ene bihotz gucia ,
Ez dut nihon soseguric , çu góçatu beharrez ,
Ene baitharic banoha , çu maitatu placerez .
Othoi , bada ez hilceco , Yesus , ene bicia ,
Çu bethi maita çaitçadan eguidaçú gracia .

Ez dacussat oren hora , ene ganic ilkhiric ,
Curekin bathnaçakena , gorphutça gabeturic :
Ene desirec balute çure besoen ahala
Hegaldaca nindohake çu gana berehala .
Othoi , bada berriz .

Hil beldurrac guehienac hiltceraino dakharzke ,
Eta ni nahiac ere ecin hil araz neçake ;
Hekien beldur gucia da gal deçaten bicia ,
Eta ni , bici beharrez , nabila hil nahia .
Othoi , bada , etc .

Hilic baicen ecin bici , hauda bada çorthiea !
Eta oraino bici behar , bortcliaz , o dolorea !

Ecin hilac ene baithan ala baidu luçatcen !
 O ! heriotce maitea , cerc hau horla berantcen !
 Othoi , bada , etc.

Amodiac ez badu ene baithan indarric ,
 Doloreari emoçu eguin deçan bakharric ;
 Ene ganic çure gana nathorrentçat çucenki ,
 Ene hatsaz gabeturic , çurekin nadin bici.
 Othoi , bada , etc.

Ene arima gorphutz hunec gathibu daducala !
 Çurekin bat içaitetic ni guibela neçala !
 Ez, ez da ceren , nolazpait, nic çurekin behar dut;
 Hunekin , edo bertcela , nic cu beharco çaitut.
 Othoi , bada , etc.

Bere urhatsa ez darama erbi perseguituac ,
 Hain laster chirripetarat orkhaitz egarrituac ,
 Nola orai sustaturic ceruco khar biciac ,
 Bainarama mundu petic , cu ganaco lehiac.
 Othoi , bada ez hiltceco , Yesus ene bicia ;
 Cu bethi maita çaitçadan eguidaçu gracia.

XXV CANTICA.

BEKHATOREAREN BOSCARIOA YAINCOA GANAT BIHURTCEAN.

Utciz gueroz bekhatua,
 Bertce bat naiz aurkhit-
 cen ,
 Ene barnea boztua
 Bet betan dut sentitcen .
 Oi ! hau da alegrantcia ,
 Bakeric goçoenac

Bethe daut bihotz gucia
 Khenduric hango penac!
 Soseguaz gabetua ,
 Nahassi bat beçala
 Bici nintcen çoratua ,
 Nehorrec dakit nola.
 Cembatenaz placeretan

Bainintcen phulumpat-	Egon naiz assaldatua
cen	Gambiatu artean.
Hambatenaz arantcetan	Phorroscatu beçain
Barnago nintcen sartcen.	sarri
Maiz ene barneco penez	Exaiaren gatheac ,
Nintcen tormentatua ,	Çoriona daut ekharri
Halaber ene hobenez	Berekin berthuteac.
Arras ahalcatua.	Descanxuz gaindi eguina
Cer bihotz min ! cer bor-	Bici naiz lorietan ,
roca !	Oi ! nolaco axeguina
Cer ez nuen pairatcen,	Den orai ene baithan !
Nahi guciez , ithoca ,	Içanbedi cantatua ,
Nintcenean goçatcen !	Yaunaren onthasuna ,
Iragan enganioa	Gucietan laudatua
Egun dut condenatcen ;	Haren çucentasuna.
Munduan bozcarioa	Aski da conbertitcea ,
Nuen bada bilhatcen !	Harekin baketceco ,
Axecabez hiratua ,	Haren ganabihurtcea ,
Bihotça , grina pean ,	Dohaxu bicitceco.

XXVI CANTICA.

*Creatureñ consideracionea gure bihotças Yaincoa ganat
altchatceco.*

CHORIAC çuen oihane -	Çuen musicaric baicic :
tan ,	Yaun onaren ohoretan
Lauda çacue Yauna ,	Ez bara cantatcetic.
Aiphä haren ontasuna	Arditchoac , bazçaçai-
Inguru gucietan.	tezte
Ez bedi entçun bas-	Ez dut çuen coriona :
terretan	Goix arrax , İari çarete

Laudatcen Artçain ona.	Yaun goicoaren maitacen ,
Çuec haice maitagarriac ,	Eta haren offentsatcen Urtheac tut passatu.
Harrabotsic eztinez ,	Ordu dut, ordu ilkhit-
Munduan eguin ahalaz ,	ceco
Emotçue graciac.	Exaiaren gathetaric ,
Phausuric gabe, ixasoa	Bide onean sartceco ,
Orroaz, borthitzki dago ;	Bekhatuac utcircic.
Bainan ez du gutiago	Huna beraz non heldu
Ohoratcen Yaincoa.	naicen ,
Ni baino leialago çare,	Yauna urrikiz betheric ;
Urço tortoila gaichoa :	Seculan , ez dut çu bai-
Laudatcen duçu Yaincoa	cen
Egun oroz , çuc ere.	Maitaturen bertceric.
Nic behar nuen gue-	Badakit hobendun
hienic ,	naicela :
Yainco Yauna ohoratu ,	Merechi dut hanitz pena ;
Eta ni naiz gutienic ,	Orhoit çaité çu çarela
Hartarat lehiatu.	Aitaric hoherena.
Ez naiz oraino abiatu	

XXVII CANTICA.

ESKERREN BIHURTCECO.

Aire hunen gainean : *Vive Jesus , vive sa Croix ;*

Edo huntan : *Jeunesse , qui dans vos beaux ans.*

DEÇAGUN canta gogotic ,
• Gaiten guciac boscaria ;
Gure salbatcea gatic ,
Yesus , eman duçu bicia.
Bai bihotçaren erditic ,
Deçagun canta gogotic .
Deçagun canta gogotic .
Cure odol preciatua

Ichuri duçu gu galic ,
Caren , o Yesus ! laudatua
Bai , bihotçaren , etc .
Deçagun canta gogotie .
Nahiz arimac ceruratu ,
Lece beltz ifernucotic .
Yesus , gaitutçu beguiratu .
Bai , bihotçaren , etc .

Deçagun canta gogotic.
Yesus , dela lorificatu ,
Harc gaitu , egundaiotic
Amodio phuruz maitatu.
Bai , bihotçaren , etc.

Deçagun canta gogotic.
O Yesus , çure ohoretan ,
Boçac errepicatcetic
Ez beitez bara bazterretan.
Bai , bihotçaren , etc.

Deçagun canta gogotic.
Oi ! hau da gure çoriona ,
Yesusec , ceru goratic ,

Galdatcen gaitu beregana.
Bai , bihotçaren , etc.
Deçagun canta gogotic.
Deiha Yesus maitearenac ,
Behartu , orai beretic ,
Gure eskerric handienac.
Bai , bihotçaren , etc.
Deçagun canta gogotic.
Bethi çaitugu laudatuco ,
Gauça gucien gainetic ,
Yesus , çaitugu maitatuco.
Bai , bihotçaren erditic ,
Deçagun canta gogotic.

XXVIII CANTICA.

ALDARECO SACRAMENDU SAINDUAREN GINEAN.

Oi ! miraculu guciz espantagarria ,
Oguiaren iduriz Yesus estalia !
Hura dut adoratcen aldare ginean ,
Hura bera dut yaten communionean .

Ene beguiec Yesus han ez dute ikhusten ,
Gorphutceco sentsuec ez dute sentitcen ;
Bainan , duda gabe dut han dela sinhesten ,
Fedeac arguituric han dut eçagutcen .

Yesusec eguin çuen azken afaria ,
Yanharitzat emanic bere haraguia ;
Haragui saindu hura yaten dut nic ere ,
Hura yanic uste dut bici bethiere .

Gurutceficaturic , enecat hil dena ,
Lorioski phisturic , cerurat igana ;
Hura da sacramendu hartan ecarria ,
Hura bera lurrean ene yanharia .

Biciaren arbola guciz aiphatua ,
 Baratce dohaxuan yaunac landatua ,
 Aurkhitcen da neuretçat communionea ;
 Nic han dut edireiten ene bicitcea.

Izraelec yan çuen desertuan mana,
 Gostu guciāc bere baithan cituena ;
 Yesusen gorphutça da neure yanharia ,
 Desertu huntan ene contsolagarria.

Yaincoaren mendirat igan cen Eliaz ,
 Sainduki borthizturic , yan çuen oguiaz ;
 Yaten dut aldareco ogui sacratua ,
 Hartaz nic ardietsi uste dut cerua.

Urerat du lehia orkhaitz nekhattiac ,
 Beroz eta ihistariz , betan , penatuac ;
 Hala dut desiratcen , Yauna , çure oguia :
 Othoi , sasia çacu ene guticia.

Choriec baditzte beren ohantceac ,
 Urço tortoilec ere non eman umeac ;
 Çure aldaretan da ene iheslekhua ,
 Nic han dut edireiten ene sosegua.

XXIX CANTICA.

MEÇACO SACRIFICIOAREN GINEAN.

CERUTIC yautsi çaren bictima garbia :
 Çu çare sacramendu , çu çare ostia ,
 Arimen yanharia , sacrificioa ,
 Bata nola bertcea , Yesus dibinoa.

Oguia da itçultcen çure gorphutcera ,
 Arnoa gambiatcen çure odolera :
 Contsecracionean han duçu obratcen ,
 Çure botherea da guciz han aguertcen.

Abelen ofrendac du çurea marcatu,
 Hura çuen ceruac clarki fagoratu ;
 Cu Sainduago çaren ofrenda garbia ,
 Cu gure on gucien çare ithurria.

Abrahamec semea çuen immolatu ,
 Haren fedea çuen çure Aitac laudatu :
 Gure Goradenaz guciz onhetsia.
 Gure esker gucien emaile handia.

Melkhisede , erregue eta aphez handiac ,
 Cu seinalatcecotçat noizbait egorriac ,
 Öguia eta arnoa , biac ofrituric ,
 Çure ofrenda çuen marcatu urrundic.

Legueco ofrendetan , chahal , bildotsetan ,
 Idi eta ahari , urço , cecenetan ,
 Causi othe daiteke itçalaz bertceric ,
 Çuri hurbiltcecotçat deus ere gai denic?

Gurutcean heçala , gure aldaretan ,
 Immolatua çare gure fagoretan ,
 Adoratçaile perfet , esker emailea ,
 Facegatçaile eta dohain escailea.

Manatu içan duçu azken afarian ,
 Gurutcean guretzat hiltceco bezperan
 Çure gorphutz garbia eta sacratua ,
 İçan çadin aphecez bethi ofritua.

Menderen fineraino , çutaz orhoituric ,
 Hori eginden dugu , kharrez sustaturic ;
 Fede bici batekin gaizkitçu hurbiltcen ,
 Çurekin içaitea dugula galdetcen.

Çure maiestatea dugu adoratcen ,
 Çure icen saindua , bilhotcez , laudatcen ;
 Barkha dietçagutçu gure bekhatuac ,
 Orai aurkhitcen gare urrikiz çaurthuac .

O ! Yesus , aldarean enetçat emana ,
 Ene yanhari goço , ostia çarena ,
 Eman duçu bicia arimen onetan ;
 Oi ! noiz naiz godtatuco çutaz ceruetan !

XXX CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN OHORETAN.

Oi ! cer ogui dut ikhus-
 ten
Gure aldaretara ,
Ceru gorenetic yausten
Arimen bazcatcera !
Bihotz kharxua ,
 Amulxua ,
Ene yanhari çare bilha-
 catcen ,
Ordainez , nola çaitut
 maitatcen !
Yaunaren amodioa
Hemen da seinalatcen ,
Oi ! han da misterioa ,
Guiçona Yaincostatcen !
Bihotz kharxua , etc.
Yainco baten sustan-
 cia ,
Gurekin da balxatcen ,
Hulaco alientcia
Norc du aski preçatcen ?
Bihotz kharxua , etc.

Enekin bat eguitea
 Duçu bada bilhatcen !
 Cer duçu , Yesus maitea ,
 Ene baithan aurkhitcen ?
 Bihotz kharxua , etc .
 Hau da neure çoriona !
 Cemba onthasun betan !
 Salbatçaire guciz ona ,
 Cer ! nic , cu ene baithan !
 Bihotz kharxua , etc .
 Aitetan den hoherena
 Aithortcen dut çarela ,
 Cu maite etçaituena
 Biciric hila dela .
 Bihotz kharxua , etc .
 Yaun ona , çure egoitça
 Ceronec çacu garbi ;
 Bertcela çure emaitça
 Oi ! nola errecibi !
 Bihotz kharxua , etc .
 Amodio sacratua ,
 Eguiçu gau , egunez ,

**Içan nadin sustatua
Cure khar bicienez.
Bihotz kharxua ,
Amulxua ,**

**Ene yanhari çare bilha-
catcen ;
Ordainez , nola çaitut
maitaceen !**

XXXI CANTICA.

YAUN HANDIA ADORATCECO.

Aire huntas : *Sur cet Autel, ah ! que vois-je paraître, etc.*

**CER çorion !
Oi ! hau da fagorea ,
Ikhusten dut Yesus mai-
tea.**

**Cer çorion !
Horra , cerutic
Yautsia nere gatic ,
Cer çorion !
Sinhetsten dut ,
Ceruetan beçala
Aldarean orai çarela ,
Sinhetsten dut ;**

**Seguratua ,
Fedeaz borthitztua ,
Sinhetsten dut .
Bihotcetic ,
Yesus , çaitu laudatcen ,
Sacramenduan adorat-
cen
Bihotcetic .
Ah ! ene Aita ,
Cu nola nic ez maita ,
Bihotcetic ?**

XXXII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN ADORATCECO.

**LAUDA çagun misterio handia ,
Yainco Yauna ostian estalia :
Cuec , Ainguerauc , ceruco gorthea ,**

Adora caue gure Erregua , gure Erregua.

**Yainco guiçon , gure Salbatçaillea ,
Mundu , ceru , gucien egualea ,
Yauts caite cerutic gure laguntcerat ,
Gure , amulxuki , benedicatcerat , ben , etc.**

**Amodio , gloria immortala ,
Trinitate sainduac dituela :
Ohore hirurei , batassun berean ,
Orai eta bethi eternitatean , etc.**

XXXIII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN BENEDICCIÓN EMAITEAN.

**YAINCO Yauna , ostia saindu huntan
Estalia guiçonen fagoretan ,
Bihotz humil batez , deçagun adora ,
Eta eguiazki maita hura bera , maita , etc.**

**Yesus guri emaiteco bicia ,
Nahi duçu içan gure oguia .
Ah ! bethe gaitçatçu benediccionez ,
Eta bethi lagun çure fagoreez , çure , etc.**

**Izpiritu dohaxu çaretenac ,
Emotcue gurutçat esker onac ;
Hambat arraçoinez çor çazcon Yaunari ,
Orai eta bethi , Trinitateari , Trinitateari .**

XXXIV CANTICA.

COMMUNIONE SAINDURACO AMODIOZCO DEIAC.

NAHI duçue yakin ene guticia ?

Yainco onarentçat da ene min gucia.

Ene baithan nago pentsatcen

Noiz ikuhisco dudan ene Yaincoa ;

Ecin bertcela biciz , ah ! hiltcerat noha.

Hura dut bethicotzat ene bihotcean ,
Hartaz landan ez duket phausuricurrean.

Haren gana noha lasterrez ,

Itchic eta pitz deçan ene gogoa ,

Ecin bertcela biciz , ah ! etc.

Ixasoan arraina peitari , lasterrez ,

Ez , doha hain gogotic nola ni desirez ;

Ecen badakit hura dela

Ene arimaren yanhari goçoa.

Ecin bertcela biciz , etc.

Haice alde , untcı bat ez doha porturat

Hain laster , chori bat bere ohatcerat ,

Nola ni yanhari hartarat ,

Harentçat dudan amodioz bainoha.

Ecin bertcela biciz , etc.

O ! mahain dohaxua , Yaincoa yanhari !

Haren odola bera dudala edari !

Ene bihotçac , berriz eta berriz

Hartaco duke bere amodioa.

Ecin bertcela biciz , etc.

Lurreco yanhariac , gaitça ethortcean ,

Uzten dira guciac , gaitça khen artean ;

Cer nahi den gaitz nic dukedan ,
 Hor dut erremedio gucizcoa.
 Ecin bertcela biciz , etc.

Bertce erremedioec , ona baino lehen ,
 Desgutzuz ene gaitça darotet bethetcen :
 Nic hekientçat desgustu beçain
 Çuc , enetçat duçu gustu miretstecoa.
 Ecin bertcela biciz , etc.

Hec , bere desgustuaz , barnea dute hiltcen ;
 Çuc , gostu gocorekin phizten eta bozten :
 Oi ! bada ez çaituzket nic , cu
 Ene erremedio soberanoa !
 Ecin bertcela biciz , etc.

Non ez nauçun ni lazter , Yauna , contsolatcen ,
 Ene desira mina ez duçu complitcen .
 Ez dakit dukedan indara
 Curi hitz haukiekien erraitecoa.
 Ecin bertcela biciz , ah ! hiltcerat noha.

XXXV CANTICA.

COMMUNIONEAREN ONDOCO SANTA THERESAREN BOZCARIOZCO
 ESKERRAC.

BICIRIC naiz , bainan ez , Yaincoan naiz bicia ;
 Orai , hare hacirican , hartan natça gucia.
 Hura ceruan beharrez ,
 Hiltcen naiz ecin hilez , Hiltcen naiz ecin hilez.

Amodio phuru bat sarthu çait bihotcean .
 Ene Yaincoarekin bat eguin naicenean ;
 Abitua haren minez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Hula bici , hula iraun , o dolore tristea !
 Bicitcea da Yauna , çu gabe bicitcea ?
 Bethi hunela egonez ,
 Hiltcen naiz , etc.

O arrasta maitea , hil nadintçat emana ,
 Bethico çoriona berekin dakharkena !
 Ukhitua haren colpez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Amodio çoroa ! bici doloreczcoa !
 Ciacusat bertee bat hi ez beçalacoa ,
 Orai harc eman indarrez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Lurrean den bicia herio bat daiteke ;
 Ceren herioac baicen ecin khen baitdeçake
 Orai ere , harc iraunez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Heriotce triste bat da orai ene bicia ,
 Gau bat da orai ene arguia :
 Bici harc berritu gaitcez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Biciric hil , hilic bici , o bici hil garria !
 Harogandua dolorez , hiltcerat dut lehia :
 Ecin complitu desirez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Badakiçu , ene Yauna , çu çaitudan meinetic ,
 Damuari axeguina daraiola , ondotic :
 Ah ! çohazkidan beldurrez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Akhaba çacu , Yaun ona , hagonia luce hau ;
 Ez eiki , çu gabe biciz , bihotçac ecin dirau ;
 Azkenecotz , çure minez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Urra , borrozca çatçu ene gathe lodiac ,
 Ceru gorac idekiric , hanbat ené nahiac ;
 Gathe hec ecin yassanez ,
 Hiltcen naiz , etc.

Bainan ez , ene Yaincoa , hec behar ditut yassan ;
 Eguiçu çure graciez , gogotic har detçadan .
 Bicitceco paira , non ez ,
 Hiltcen naiz ecin hilez , etc.

XXXVI CANTICA.

PURGATORIOAZ.

Aire huntan : *Itçul hadi , itçul , bekhatorea.*

OI ! arima Yaincoaz onhetsia ,
 Orhoit hadi badela lekhu bat ,
 Hemen arras , ceruco yusticia
 Satisfatu ez duenarentzat .

Borratua içan arren hobena ,
 Ez ciaucuc Yaincoac barkhatcen ,
 Gaizkiari noizbeit çor çaison pena ,
 Non ez dugun ossoki pairatcen .

Hurbil hadi purgatoriorat ,
 Yainco botherea bera denac
 Eguin duen suzco lece hartarat ,
 Entçunen tuc auhenic minenac .

Arima hec gauça gutia gätic ,
 Bici dituc hatsgorapénetan ;
 Urrunduac oraino gloriatic ,
 Aurkhitcen tuc tormenta dorphetan .

Cenbatenaz maitagarriagoa
 Eğagutcen bai dute Yaincòa ,

Hambatenaz çiae borthitçagoa
Yassan behar duten ondicoa.

Legue balitz mundura bihurtcea
Hango penac behin frogaturic,
Ez, ez laite cilhegui mintçatcea
Yaincoaren yusticiaz baicic.


Oi! menturaz, gure adiskideac
Gure gatic dire punituac,
Gure hauço, burhaso, ahaideac,
Gure faltaz, sutan hondatuac.

Behar bada hemen gure alderat
Amodio sobera çutelacotz,
Içan dira purgatorioetarat
Aurthikiac hanitz urthetacotz.

Çuec, gure adiskide maiteac,
Diote maiz, nigar marrasketan,
Othoitz, barur eta caritateac
Eguitçue gure fagoretan.

Othoi, Yauna, othoi, urricalmendu
Purgatorioetan daudecenez:
Darotçugu galdetcen barkhamendu
Hekien mundu huntaco hobenez.

Bara çaité, bara hei yaçartçetic;
Guehiago ez utz hec erretcen:
Ah! has beitez, atheraric su petic,
Çutaz, Yauna, ceruan goçatcen.



XXXVII CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SAMURRARI OTHOITÇA.

O YESUSEN bihotz sa-
mūr,
Enetzat idekia ,
Othoi , emaçu neurean
Çu ganaco lehia.

Ikhusten çaitudanean
Arrantceez bethea ,
Niholere ez dut nahi
Lore pean neurea.

Gurutcea dakharkeçu
Çure bihotz garbian ;
Nic ere dut ekharriren
Neurearen erdian.

Yassanen dut gurutcea
Gogotic , çuc beçala ;
Seculan salbamenduric
Ecin duket bertcela.

Egiçu onhets deçadan
Çuc onhesten duçuna ;
Deçadan higuin ossoki
Higuingarri çaitçuna.
Irakhasten darotaçu
Humil , ezti içaiten ,
Ene yaidura gaitchoac
Artharekin cehatcen.
Içanen naiz colpatua ;
Yesus , çutaz bakharric
Ez beça ene bihotçac
Senti bertce colperic.
Nahi cintuzket mai-
tatu ,
Bihotz maitatcecoa ;
Ochala bada bacindu
Ene amodioa !

XXXVIII CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SACRATUAREN OHORETAN.

YESUS onaren bihotz maitea ,
Çu çare neure gucia ;
Bethi da çure ganat içanen
Bakharric ene lehia.

Norc du erranen ez dakiela

**Bihotz hartarat bidea ?
Soldaduaren lantçac darocu ,
Ideki hango athea.**

**Lore suerte guciāc baino
Ederrago çarelaric ,
Cer gatic , bihotz maitagarria ,
Arantces çare betheric ?**

**Alde orotaric hartcen çaituzten
Arantceac , gurutceac
Dire , o Yesus ! lur gaichto hunec
Eman dauzkitçun loreac.**

**Sainduen bake , sainduen sari ,
Sainduen goço gucia
Bihotz horretan gordea datça :
Gauçaren miragarria !**

**Amodioaz amodioa
Pagatcen bada munduan ,
Arraçoinekin duçu mereci
Neurea sacramenduan.**

**Orai artean ibili banaiz
Ihesi gurutcetaric ,
Orai naiz çure bessoetan
Bici beticotz yossiric.**

**Ene bihotça munduarentzat
Egon bada idekia ,
Çu hartu eta , idukiren dut
Creaturentzat hertsia.**

**Hau da , o Yesus ! hil arteraino ,
Hitz emaiten dautçudana :
Nahiago dut hau hautsi baino ,
Sarthu herrauxean barna .**

XXXIX CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SACRATUAREN ALDERACO SENTIMENDUAC.

Aire huntan : *O mon Dieu, que votre Loi Sainte.*

Edo huntan : *Réveillez-vous, etc.*

BIHOTZ Yesus maitearena,
Graciaren ithurria,
Hemen naiz, bihotz samurrena,
Çure ganat ethorria.

O ! ecin azki laudatuzco
Bihotz garbi, sacratua,
Noiz çaitut bada maitatuco !
Cerc nauca sorhaiotua ?

Bihotz enetzat sustatua,
Berant çaitut eçagutu ;
Bihotz ezti, preciatua,
Helas ! ez çaitut maitatu.

Alferretan nauçu bilhatu,
Bihotz bethi çabaldua,
Çure ganic naiz apartatu
O ! hau da çoramendua.

O bihotz nahicarascoa,
Munduac nau enganatu ;
Tresor, gucien gainecoa,
Ez çaitut aski preçatu.

Ala baitçait erhokeria
Çuri ez yarraikitcea !
Bihotz bethi maitagarria,
Çu ez funxki maitatcea !

Bihotz iheslekhu segura
 Creatura gucientçat :
 Amodiozco gaindidura ,
 Cer eguiten dut curetzat ?
 Bihotz guciz ona çarena ,
 Hasten naiz çure maitatcen ;
 Cu gabe bici daitekena
 Ossoki çait urricaltcen.

XL CANTICA.

BIHOTCECO GARBITASUNAZ.

Asco Aireren gainean, eta guciz hunen : Dans ces désertes campagnes, etc.

Dohainetan ederrena ,
 Hain baliosa dena ,
 Egun nahi dut aiphatu ,
 Errepicaz cantatu .
 O garbitasun maitea !
 Placer eztiz bethea ,
 Ochala ! cu laudatcean ,
 Bacintut bihotcean .

Berthute preciatua ,
 Es aski maitatua ;
 Lore gucien lorea ,
 Arantceric gabea ;
 Bethi duçu distiatcen ,
 Barnea descanaxatcen ;
 Cu berekin çaituena
 Datça dohaxuena .

Non nuke adimendua
 Onhesterat mundua ?
 Urrün da segur baidut
 nic ,
 Haren guticiaric .
 Yainco choila maitat-
 ceac ,
 Hari yarraikitceac ,
 Eguiten dic, o guicona !
 Funxezco çoriona .

Amodio munduoa ,
 Phoçoin ondicozcoa ,
 Phisuar et dorpheac
 Dituc hire gatheac .
 Non çaitut , castitatea ,
 Bihotçaren bakea ,

O ! berthute berecia ,	Bihotça çaic bozturen.
Çutan natça gacia.	Çuc duçu castitatea ,
Çuc nauçu castitatea ,	Ceru goreñ gorthea ,
O berthute maitea !	Beregainki loriatcen ,
Ossoki bozcariatcen ,	Saindu berriz publatcen :
Damuetan contsolatcen : Berthute hunen indarra	Çure bidez , han sart-
Froga çac , mundutarra , Bertce bat haiz aurkhi-	ceco ,
turen ,	Yaun ona goçatececo ,
	Egonen naiz , hil artean ,
	Nahi kharxu batean.

XLI CANTICA.

MEDISENTIAZ.

Eçagutuac diren hanitz Aireren gainean.

BICIO bat orotarat , ondicoz !
Arimen gal arazteco Sathanec asmatua ;
Hemen , balxan , begar dugu , lehiaz , attacatu ,
Christauen bihotcetaric bethicotz desterratu .

Hura da gure mihiaz gaizki baliatcea ,
Bethi cerbeit erraiteco bertcerentçat aurkhitcea ;
Hura da medisentzia : lazten nau aiphamenac !
Norc compreni , norc explica seguida dakharzkenac ?

Norda haren guericean eman daitekeienic ?
Cein da bada , cerbeit guisaz , colpatcen ez due-
nic ?
Haren lantça colpe minac norc ez ditu frogatcen ?
Haren phoçoin caltekorra non ez othe da sartcen ?

Nohan huna , nohan hara , nohan gucietara ;
 Mihiac ditut causitcen plegatuac gaizkira :
 Batere baniz tricatcen munduko solasetan ,
 Bethi cerbeit dut entçuten lagunaren caltetan.

Nihor ez du medisentas , munduan guphidets-
 ten ,

Yaincotiarac ohi tu guehienic gaitzetsten :
 Ez mirets nahi badio bertceren ohoreari ;
 Inbidia , yelosia ditu bere guidari.

Medisentaren mihian ez da ceren khondatu ,
 Haren baithan fida dena laster daite trompatu ;
 Sugue bat da , lore pean , gorderic bici dena ,
 Noiz edo noiz , nor edo nor ausikitcen duena.

Aditcerat medisenta , berac ez du baiaric ,
 Innocentia bera da pharte gucietaric ;
 Lasto bat ikhusiren du bertceren beguietan ,
 Eta ez laça lodiena behinere beretan.

Ez du proximo laguma berebala larrutcen ,
 Hasteac ederrac ditu , badaki lausengatcen ;
 Heldu da guero bainan bat : bitz hunen maleciac
 Içurritzaten ohi tu laudorio guciae.

Hic dituc , medisentia , hauçoac assaldatcen ,
 Adiskide , ahaideñan hotztasunac eçartcen ;
 Hedatcen duc nahasdura gure bihotcetara ,
 Herri , hiri , erresuma , bazter gucietara .

Cer ethorri care bada , caritate maitea ,
 Dohain eder , preciatu , placer goçoz bethea ?
 Cer bilhacatu da bada cutaz eman manua ?
 Oinen azpian dabila : oi ! hau çoramendua !

XLII CANTICA. •

MISSIONE EDO ERRETRETETACO DEMBORAN.

Hanitz Aireren gainean.

Oi ! Yauna , çure graciac

Etxaizkit baliatu ;

Çure fagore guciac

Bethi ditut arbuiatu ;

Niri ongui eguitetic

Ez , etçare baratu :

Ordinez , ene phartetic ,

Nola çaitut maitatu ?

Lagunça berecinez

Orai inguratua ,

Eguia entçun tudanez

Gucia hunkitua ,

Ossoki naiz ahalcatcen

Bicite iraganaz ,

Ene bihotça da çaurth-
cen

Urrikiric minenez .

Helas ! harrocaren pare

Curetçat naiz aguertu ;

Guciarekin ez care ,

Yaun ona , mendecatu .

Ah ! egun dohaxu hau-
tan ,

Graciac nau garhaitcen ;

Sarthua naiz ene baithan

Funxki çaitut maitatcen .

Urrun hadi , bekhatua ,

Urrun ene bistatic ;

Iduki nauc trompatua ,

Galtcer nauc hire gatic .

Ifernurat erortcea

Maiz diat irriscatu ,

Su lametan erretcea ,

Ceren haudan maitatu .

Gaizkiac ditut largat-
cen

Curi yarraikitceco ,

Ongua dut bessarcatcen ,

Yauna , cu ganatceco .

Oi ! çure ganic ez nago

Seculan urrunduric ;

Akliabo da guehiago ,

Batere bekhaturic .

Çaharrac eta gasteac ,

Eman gaiten cantatcen ,

Khar saindu batez bet-
heac ,

Yaun ona ohoratcen ;

Bai , canta çagun , gogo-
tic ,

Cerua laudatceco ,

Gure boçac balxaturic ,

Eskerrenbihurçceco .

PREDICUETACO Ave MARIA.

AGUR Ama Yesus maitearena,
Emaztetan gucien garbiiena,
Bethi dela benedicatua
Çure ganic, çure ganic, çure ganic sorthua.

O-Biryina gure laguntçailea !
Othoitz çäçu , othoitz salbatçailea
Egun oroz , gure sagoretan ,
Eta guciz, eta guciz, hiltceco orenetan.

ARROSSARIOCO**HAMABORTZ MISTERIOAC.****BORTZ AXEGUINEZCOAC.****I. INCARNACIONEA.**

ADORATCEN çaitut, Verbo dibinoa,
 Ceren eguin çaren guiçon ene gatic;
 Eta curi dautçut obore ossoa
 Amatu çarena, Biryina egonic.

Misterioaren fruitua. Humilitatea.

II. BIRYINAREN ANNONTCIACIONEA.

Biryina Saindua, ceinaren bisitac
 Joanes bethe baitdu bethicotz graciez;
 Çu beraz çaitçala, çu ene bihotçac,
 Leialki cerbitça, maïta abal guiez.

Misterioaren fruitua. Caritatea.

III. YESUSEN SORTCEA.

Pobre sorthu çare, Yesus, estalbian,
 Adoratcen çaitut, egun, lasto pean,
 Probatchaturen naiz bicitce gucian,
 Çure exempluaz humilitatean.

Misterioaren fruitua. Pobreciaren amodia.

**IV. YESUS TEMPLUAN AGUERTCEA , EDO BIRYINAREN
PURIFICACIONEA.**

Biryina , Templuan purificatua ,
Eta sustatua Simeon beçala ;
Noiz aurkhituren naiz hatsaz gabetua ,
Christo biltceraino gogoan dudala ?

Misterioaren fruitua. Obedientcia.

V. YESUS TEMPLUAN AURKHITUA.

Amac , nigarretan , Semea galduric ;
Bozic aurkhitcen du Doctoren erdian ;
Yesus , ene hutsez nigarrac eguinic ,
Aurkhituren çaitut nic ere , aguijan.

Misterioaren fruitua. Contricionea.

BORTZ MISTERIO DOLOREZCOAC.

I. YESUS OLIBETACO BARATCEAN OTHOITCEAN.

Egorri khalitça , Yesus , duçu hartcen ;
Sumetitcen caizco manu dorpheari ;
Ni ere natçaio , cinez sumetitcen ,
Cer nahi penetan , çure nahiari .

Misterioaren fruitua. Sumetimendua.

II. YESUS ACOTATUA.

Yesus , harroinari , larru has lothua ,
Acotez çaituzte çaurtheen barbaroki ;
Eguiçu ni ere , noiz nahi , hertstua
Gaitcentzat ez nadin içan minberegui .

Misterioaren fruitua. Pacientcia.

III. YESUS ARANTCEZ KKOROA TUA.

Monarkhen Nausia, helas! odoletan,
 Burreuec çaituzte errabias eman;
 Eta nic, ezdeusac, placer gucietan
 Bicitee labur hau deçadan eraman.

Misterioaren fruitua. Mortificacionea.

IV. YESUS GURUTCEAZ CARGATUA.

Isaac berria, Yesus, ene gatic
 Hartu içan duçu gurutce dorphea;
 Gogotic yassanen dut cure ondotic,
 Animoz betheric, nic ere neurea.

Misterioaren fruitua. Urricalmendua.

V. YESUS GURUTCEFICATUA.

Çuc ossatu duçu, Yesus, gurutcean
 Obra gucizcoa, gure erospena;
 Eracusten duçu, horrela hiltcean,
 Gure salbatceco kharric biciena.

Misterioaren fruitua. Iraupena.

BORTZ MISTERIO GLORIOSAC.

I. YESUS PHIZTUA, EDO ERRESURRECCIONEA.

YESUS hilic phiztu, o cer bozcarioa!
 Ni ere berekin phiztu nau gracian.
 O cer eçagutca! o eer amodio!
 Bihurturen diot, bicitee berrian!

Misterioaren fruitua. Conbertsionea.

II. YESUS CERURAT IGAITEA.

Çohaz gloriara , Yesus yauna , çohaz
 Enetçat lekhu bat han aldaratcerat ;
 Exaien artetic graci en laguntçaz ,
 Hel araz naçaçu gloria bererat .

*Misterioaren fruitua. Munduko gaucen alderaco
 ez antsiatasuna.*

III. İZPIRITU SAINDUAREN YAUSTEA.

Izpiritu Saindu , lurrera yautsia ,
 Bethea çarena ceruco indarrez ;
 Susta dieçadaçu bihotz gacia ,
 Erre bekit , Yauna , çu ganaco hkarrez .

Misterioaren fruitua. Erretiramendua.

IV. AMA BIRYINAREN HERIOTCEA.

Amodioz çare biciaz gabetcen ,
 Biryina Saindua , çohaz gloriarat ,
 Nic ere neurea dudanean galtcen ,
 Çaren bitarteko hel uadin hartarat .

Misterioaren fruitua. Yaincoarekin batasuna.

V. AMA BIRYINAREN CERUAN ERRECIBITCEA.

Ama dohaxua , ceru gorenean ,
 Çure haur maiteac çaitu khoroatu ;
 Errespetatcen dut , ahuzpez lurrean
 Çure botherea : sokhorri naçaçu .

Misterioaren fruitua. Fidantcia.

NOELAC.

I NOELA.

O! Eguberri gaua ,
Boscariozco gaua ,
Alegueratcen duçu ,
Bihotcean Christaua .

Mundu gucia duçu
Çorionez bethetcen ,
Ceren çuc baidioçu
Messiaz dela sortcen .

Gau ilhunean ez da
Agueri iguzkirie ,
Hunetan dacusagu
Miraculuz ilkhirie .

O ! gau desiratua ,
Gucia duçu biztu ,
Ceinac mundu gucia
Behar baitu arguitu .

Arguiçaguiac dire
Boscarioz dantçatcen ,
Ohi baino dutela
Guehiago arguiteen .

Ainguero onac berriz ,
Hassi dire cantatcen ,
Bosterat ditutzela ,
Tristeac gombidatcen .

Errepicatcen dute ,
Maniuretez , artçaineec

Adarrari diote
Ihardesten larrainec .
Arrainac hari dire
Yaucica ur barnean ,
Abereac mendietan ,
Hegastinac airean .
Gauça guciac dire
Orai alegueratcen ,
Orobat eguitarat
Gaituzte erakhartcen .
Ifernuco ostea
Gau huntan da tristatcen ;
Haren centçatçaillea
Ceren den orai sortcen .

Idolac aldaretan
Betan dire muthutu ;
Aztiec arraçoina
Laster dute galdetu .
Bertceric ez diote
Deusere ibardetsi ,
Haur batec dituela
Baicic ichil araci .
Ichildu behar çuten ,
Iuc ordainez cantatu ,
Çorionean dela
Yainco Semea sorthu .

II NOELA.

O! gau dohaxua,
Yaincoaz hautatua,
Caucuna hurbiltcen ;
Messiaz maitea,
Graciaz bethea
Da munduratcen.

Hox , Aingueruekin ,
Arcanieluekin ,
Gaur cantatcera ,
Gure Erreguearen ,
Yainco eternalaren
Adoratcera.

Ez , içotça gatic ,
Ez , illhuna gatic ,
Ez egon herabez ;
Har fedea guida ,
Yesus baithan fida ,
Goacen , lasterrez .

Hemen dut sinhesten
Beguez ikhusten
Banu beçala ;
Mariac umea ,
Ume hain maitea ,
Yainco duela :

Harentçat lekhuric ,
Hain guti oheric
Etcen aurkhitu ;
Tresoren yabea ,
Gucien printcea
Cen arbuiatu .

Erregueec etcheac
Dituzte betheac
Gauça ederrezz ;
Yesús , çu lurrean ,
Eta lasto pean ,
Çaude nigarrez .

III NOELA.

O! Eguberriren airean.

YAIKI gaiten , christauac
Guciac ohetaric ,
Hel gaiten Eliçarat
Boz eta alegueraric .

Aingueruen cantuec
Gaituzte gombidatcen ,
Artçainen maniuretec
Lotaric irartçatcen .

Eman gaiten guciac
Lurrean belhaunico ,
Sorthu den haurtchoari
Ohore bihurtceco.

Agur, ceru goraren
Erregue gucizcoa ,
Çu çare , badakigu ,
Creaturen Yaincoa.

Yautsi çare cerutic
Mundua salbatcera ,

Heldu gare lehiaz ,
Çure adoratcera.
Arren bada ohore
Curi darotçuguna ,
Egun , onthets çäçü ,
Othoi, gure Yaun ona.
Ordainez , eguiçu
Çuc halaber gracia ,
Çure sortce sainduaz
Gaiten ongui balia.

IV NOELA.

Badohake Aire huntan : A la venue de Noël, etc.

DUGUN alegrantcietan
Canta Yesusen sortcea ,
Gure ahal gucie'an
Ohora Yainco semea.
O ! Yesus , çure graciac
Gambia gaitçan guciac.
Errepicaz Ainguerauc
Entçuten dire cantatcen,
Gu ere loriatuac
Has gaiten Yauna laudat-
cen.
O ! Yesus.... (*Berriz*).
Yesus erregueez , art-
çainez ,
Içan da adoratua ,

Ah ! gutaric guehienez
Nola da eçagutua.
O ! Yesus , etc.
Yesus, negu gogorrean
Ohetçat duçu lastoa ,
Nola beraz placer pean
Dukegu gure gogoa ?
O ! Yesus , etc.
Sortcetic aphaltasuna
Darocuçu predication
Cer gatic goratasuna
Dugu bada bilhatcen ?
O ! Yesus , çure graciac
Gambia gaitçan guciac.

V NOELA.

CERU , lurrac , has caitezte
 Bozcarioz cantatcen ,
 Ceren , orai , gaua duen
 Iguzkiac arguitcen .
 Duela laur mila urthe
 Içar igurikiac
Ditu lurretic urruntcen
 Itçal , hedoi guciac .

Lurra ceru eguiteaz
 Ez gaitecen espanta ;
Guiçon eguinda Yaincoa ,
 Ceruaren presenta !
 Guiçon eguin denaz gueroz
 Ceren escas dukegu ?
 Yautsi behar cen Verboa ,
 Orai gurekin dugu .

Arren beraz khecha gaiten
Goacen Bethleemerat ,
 Artçainekein bat eguinic ,
 Haurra adoratcera :
 Han dela gure bakea
 Diote Aingueruec ;
 Yaun goicoari loria
 Çor diogu guciec .

Ez , ez dugula beldurric
 Haren maiestateaz ,
 Eguigun lehen bai lehen
 Haren hatcemaiteaz :

Gracien ithurburua
Du berekin ekhartcen ,
Beldurra khassaraciric ,
Bihotça du galdetcen.

Orai beraz altcha gaiten
Ohe guri hautaric ,
Haur yaio berria gana ,
Goacen elkhar harturic .
Gu cerura guidatceco ,
Cerutic ethorria ,
Oi ! huna non dacusagun
Trochetan ecarria.

Bere manuz , ceru , lurrac
Bethi darabiltçana
Guiconaren da manuco
Orai bera emana .
Guri beraz emaiteco
Bere yaincotasuna ,
Berac du berekin hartcen
Gure guicontasuna .

Ez dukeçu , o ! Maria ,
Haurrarentzat ostatu ,
Bera beharco den arren
Gucien ihez lekhu .
Balakike , nahi balu ,
Berac toki bilhatcen ;
Humiltasuna doracu ,
Hastetic , predicatcen .

Etchola bat citcaion
Aski içanen cela ;
Guçonekin , lasterrenic
Handic bat citekela .

Eta beraz , Artçain ena ,
Huna gure bihotça ,
Nahia duçun beçala :
Eguiçu han egoitça .

VI NOELA.

Aire hunen gainean : Or , dites-nous , Marie
Edo : ô ma tendre musette , etc.

CANTA çagun guciec
 Abalic gorena ;
Lauda çagun María
 Andre handiena.
Yakin çuen cerutic
 Cer cen guerthaturen,
Biryina gueldituric ,
 Cela amaturen.
Gure salbamenduaz ,
 Erraçu , Maria ,
Norc ekharri çorotçun
 Cerutic berria ?
Gabriel Ainguerauc
 Etchean sarthuric ,
Yaincoari ceruan
 Gu urricalduric .
Cer , Aita eternalac
 Çuen gastiatu ?
Gabriel Aingueraua
 Nola cen mintçatu ?
Salutatoen çaitugu ,

Biryina María ,
 Gracia da çurekin
 Eta Yaun handia .
 Cein lekhutan cinau-
 den
 Hitz hauc aditcean ,
 Gabriel Ainguerauc
 Cu salutatcean ?
 Calilean nindagon ,
 Herri ederrean ,
 Ene guelan bakharrie
 Debocionean .
 Gabriel Ainguerauc ,
 Cu salutaturic ,
 Eman içan çarotçun
 Deus bertce berriric ?
 Contcebituco duçu ,
 Cioen , sainduki ,
 Seme içanen duçu
 Yainco bat segurki .
 Maria , othe cinen

Çure baithan laztu,
 Hitz horiez cenean
 Gabriel mintçatu?
 Bai, ez bainuen nahi
 Seculan escondu,
 Ez eta Biryinaren
 Ohorea galdu.
 Aingueruac cer erran
 Çarotçun Maria,
 Ikhusicic cinela
 Trublatu gucia?
 Izpiritu Saindua
 Da Seinalatuco,
 Miraculu hori du
 Berac obratuco.
 Maria, Ainguerua
 Cinduen sinhetsi,
 Eta nola cinioien
 Hari ihardetsi?
 Ceruetaco Yauna
 Dela adoratu,
 Haren nabi saindua
 Ossoki complitu.
 Erditceco dembora
 Cenean ethorri,
 Eman içan cinioien
 Yesus munduari?
 Bai sorihu cen ordutic
 Fruitu dibinoa,
 Gucien salbatceco
 Ceruco Yaincoa.
 Erraguçu, Maria,

Ala cen palacioa,
 Haren sor lekhua,
 Ala gastelua?
 Oi! ez etcen horrela
 Mundurat aguertu,
 Heia hautsi bat çuen
 Sorlekhutçae hartu.
 Nor ethorri citçaion
 Agur eguitera,
 Hurbildu cen handiric
 Besten emaitera?
 Guiçon eta emazte
 Guti cen aguertu,
 Esclabo batçu guisa,
 Guintuzten largatu.
 Etcen bada, Maria,
 Bederen artçainic
 Yesus adoratcera
 Lehiatu cenic?
 Bai, artçainac cituen
 Lehenic ikhussi,
 Hekien bihotz onac
 Cituen onhetsi.
 Erraguçu, Maria,
 Bacen erregueric
 Çure Seme Yaincoa
 Ikhussi çuenic?
 Hirur erregue ciren
 Urrundic hedatu;
 Ceinec, bere presentez
 Çuten ohoratu.
 Erraguçu, Maria,

Handitu cenean,
 Hea çuten guciec
 Maitatu lurrean?
 Bai, maite içan çuten,
 Bainan ez, yuduec,
 Coleraz, inbidiaz
 Herraz ixutuec.
 Hitz gutiz laburtceco,
 Erraçu, Maria,
Gurutcean itçatu
 Cuten Yaun handia?
 Ai! bai, itçatu çuten
 Yaincoa habean,
 Gaizki accusaturic,
 Ohoinen artean.
 Erraguçu, Maria,

Hea urrun cinen,
 Ala burbil Semea
 Ikhussi cinduen?
 Haren aldean nintcen
 Ongui flacatua,
 Nigar kharraxenetan
 Gucia urthua.
 O! Biryina Saindua,
 Othoizten çaitugu,
 Semearen tronuan
 Lagun çakizkigu:
 Yuiatcean mundua
 Azken egunean,
 Eguiçu eman gaitçan
 Bere escuinean.

VII NOELA.

Aire hunen gainean : *De tout un peu ; edo
Du haut en bas.*

O! Bethleem,
 Ala!, egun, çure gloriac,
 Oi! Bethleem,
 Ongui bai du distiatcen!
 Cu ganic heldu diren ar-
 goiac,
 Betheitcen tu bazter guciac.
 Oi! Bethleem,
 Cer ohore!
 Ala baitçare goratua!
 Cer obore!
 Cer gracia! cer sagore!

Ceruaz çare hautatua,
 Yesusen care sorlekhua
 Cer ohore!
 Azkeneco
 Hor heldu da Yesus yustua,
 Azkeneco
 Gu dohaxu eguiteco;
 Herxi nahi du ifernua,
 Guretçat çabaldu cerua,
 Azkeneco
 Gure gatic
 Yainco bat botherez bethea,

Gure gatic

Yaustenda ceru gératic ;
Bai, sortcenda Yesus maitea,
Bictima notharic gabea,
Gure gatic.
Maniateran
Datça haurric aberaxena,
Maniateran !
Norc çukan seculan erran
Ceru, lurren Yabea dena
Ikhussiren cela elçana,
Maniateran !
Artçainekin !

Heldu naiz cu gana, lehiaz
Artçainekin,
Hec beçala nahiz eguin.
Adoratcen caitut, Messiaz,
Eta maite, bihotz guciaz,
Artçainekin.
Ez dut deusic
O Yesus ! çuri escaintceco,
Ez dut deusic,
Bihotz hobendun bat baicie;
Eskerren çuribihurtceco,
Hambat emaitcen pagatceco,
Ez dut deusic.

VIII NOELA.

Atçar gaiten, atçar lotaric,
Gau hunjan da Yesus sort-
cen ;
Amodioac garaituric
Gure gatic da ethorteen....
..... Berriz.
Gu cerurat nahiz altchatu
Yesus yausten da lurrerat ;
Heidu da gu nahiz salbatu,
Gorphutz bilkor bat hartce-
rat.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.
Ala haren laudorioac
Behar baitugu cantatu !
Ala gure bozearioac
Behar baitu seinalatu !
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.
Bekhatua, munstro tristea,
Hoa hire lece beltcerat ;
Ethorri duc Yesus maitea
Hire obren urratcerat.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.

Cerc gaitu báda guibelat-
cen ?
Hel gaiten, hel Yesus gana ;
Bekhatoreen gatic da sortcen
Saindutasuna bera dena.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.
Ikhusgarri miretstecoa,
Oi ! hau da humiltasuna :
Ceruaz beraz goragocoa
Maniateran da emana.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.
Erregueen Erregue delaric,
Ez du nahi distiatu ;
Ez du nahi palacioric,
Heiatchar bat du hautatu.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.
Hotçaz ere da penatua
Sasoinen Manatçaillea,
Guciez datça gabetua
Gucien Creatçaillea.
Atçar gaiten, atçar lotaric,
Atçar gaiten, etc.

Bi bestia ditu laguntçat
 Horra Yesusen gorthea ;
 Lasto guti bat etçantçatzat,
 Oi ! hau gauçaren dorphea !
 Atçar gaiten, atçar lotaric,

Atçar gaiten, etc.

Exemplu miragarrienaz
 Yesusec gaitu behartcen,
 Amodioric kharxuenaz
 Bere gana gombidatcen.
 Atçar gaiten, atçar lotaric,

Atçar gaiten, etc.
 Amodioac du sustateen
 Haren bihotza guretçat :
 Has galten, has haren mai-
 tacen,
 Declara gaiten harentzat.
 Atçar gaiten, atçar lotaric,
 Gau huntanda Yesus sortcen;
 Amodioac garaituric,
 Gure gatic da ethortcen.
 Atçar gaiten, etc.

IX NOELA.

URTHEBERRI EGUNECO.

Egun estrainatu gaitu haurrac odolaz..... biz.

YESUS, haurcho, larru delicatua,
 Gure gatic çare doloratua,
 Çortci garreneco odolstatua.

Egun estrainatu gaitu
 Haurrac odolaz.

Urthe Berri dugu, egun, Ichena,
 Onez berri dacuçu bihotz barnea,
 Barkhatcen duçula gure hobena.

Egun. berriz.

Galtcen hari guinen orai artean,
 Emaiten gaitutçu portu onean,
 Fundi ez gaitecen ixaso pean.

Egun, etc.

Huna hemen orai yaio berria,
 Berritcen duena mundu guria;

Gu salbatceco du hartu bicia.

Egun, etc.

Yesus, çuc iguçu cure arguia ·
Bethiere gaiten hortaz bilia ,
Ikhus deçaguntçat cure loria.

Egun, etc.

Estraina gaitçatcu, Yesus maitea ,
Bake saindu baten dugu galdea ,
Eguiçu dohaxu gure corthea.

Egun estrainatu gaitu
Haurrac odolaz.

X NOELA.

TRUFANIA EGUNECO.

Christo guciec deçagun egun adora..... berriz.

HAUCHE da içarra aguertcen dena ,
Berri bat dakharke , den handiena ,
Yesus maitearen sortcearena.

Christo guciec deçagun egun adora.

Hirur erregueac ditu guidatcen ,
Yesus haurra gana dire hedatcen ,
Presentekin dute han adoratcen.

Christo guciec , etc.

Myrra , intsentsua eta urrea
Ekhartcen dituzte , Salbatçaillea ,
Çuri escaintceco present berea.

Christo , etc.

Gaspar Erregueac, Yainco handia,
 Adi arazten du myrraz egua,
 Guiçona carela larruz bestia.

Christo, etc.

Baltazarrec, emaitean urrea,
 Bai, dio, carela, Yesus maitea,
 Erregue gucien lehen printcea.

Christo, etc.

Melkhiorrec ere du sinhestea,
 Bere intsensuaz eman fedea
 Eguiaz carela, Yainco Semea.

Christo, etc.

Hitz batez hirurec fede ossoa;
 Bai diote carela, Yaun ceruhoa,
 Guiçona, Monarkha eta Yaincoa.

Christo, etc.

İçar distios bat hei egorreric,
 Atheratcen tutçu ilhumbaric,
 Çure gana deitcen tronuetaric.

Christo, etc.

Ni ere arguitcen nauçu fedearaz,
 Eguiçu oraino hekien chedeaz,
 Adora çaitçadan, aldiz neureaz.

Christo, etc.

Egun, egor guçu içar çurea,
 Aurkhi deçaguntzat, gure Yabea,
 Cu ganat heltceco chuchen bidea.

Christo guciec deçagun egun adora.

XI NOELA.

MAUR INNOCENTEN SARRASKIA.

ERREGUEAC caudeçela
Haurraren adoratcen,
Errepustaren beguira
Herodes cen anhatcen,
Haimbertce non othe daude?
Erran cuen, ascotan,
Ceren Adioz erran cioten
Berriz itçultcecotan.

Ez ahal naute burlatu,
Hirur, nola hirurec;
Bere hitçac idukitcen
Dituzte erregueec.
Haren ganaco cirela
Cuenean etsitu,
Coleraturic citçaien
Soldaduei minicatu.

O! gazte, peril handitan
Bethi ene lagunac,
Eraculs çaiteste, oral,
Ene adi modunac.
Errepustaric ez dute
Erregueec bihurtu:
Sorthu denarekin dute
Ene contra aditu.

Nihor ez dut eçagutcen
Nausi neure gainean,
Cuec ere nitaz landan,
Nihor, ene ustean.
Borroca handienean
Datça ene gogoa,
Ceren nahi darotaten,
Orai, khendu khoroa.

Cein den ere nic ezdakit,
Sorthu den erreguea;
Hala, bethi, naiz guelditcen
Khechagunez bethea.

Cohazte hil çatçue
Bethleemgo semeac,
Bi urthetaraino hiltcen
Dire ume cheheac.

Hiricoac hiltçalçue
Baita inguruetaocoac:
Galdu behar du bicia
Erregue delacoac.
O! gazteac, eguiçue,
Othoi, diliyentzia,
Peril hautaric athera
Çaçue ene bicia.

Abiatu ciren, harma
Corrotçac escuetan,
Arguitcen çutela, nola
Icarrec ceruetan.
Yoan ciren ohasketara
Haur gaichoen hiltcera
Baita çokhuetara
Gordeac aurkbitcera.

Alfer, haurrekin ihessi
Dohas ama tristeac;
Ardiesten tu soldado
Pietate gabeac.
Bi mila ciren iragan
Harma corrotcetaric,
Ama gaichoen auhenac
Guti urricalduric.

Lur gucia cen estali
Haur gaichoen gorphutzez,
Hibaiac ere gorritu,
Hec ichuri odolez.
Odola cen amen esnez
Oraino nahasia,
Ecen, doidoia ahotic,
Çuten utei dithia.

**Herodesec hala çuen
Hil bere egarria.
Nor egon gaititu gabe
Halaco errabia?**

**Etçuen bere nahia
Erregue hare complitu;
Handic çuen Yesus haurra
Yosepec aldaratu.**

XII NOELA.

AZKENECOAREN SEGUIDA.

Haur innocenten amen bihotzmina.

INNOCENTEN ama onac
Guciz ciren harritu,
Soldaduac cirenean
Bethleemerat hedatu;
Icialdura citcaien
Ethorri bihotcera,
Nigarra beguietara,
Ikhara gorputcera.

O haurchoac, çuten erran,
Çuec bada bain sarri
Behar çaituztegu galdu,
Bihotcen hiragarri.
Madarica dadilala
Herodez barbaroa!
Ceinac hambat assaldatcen
Baidu gure gogoa.

Batçu ciren abiatus
Haurchoekin ihesi;
Laster ordean cituzten
Burreuec ardietsi:
Berehalia bere harmac
Atheratu cituzten;
Eta haurtchoei lehoian
Leguez, yautsi citçaizen.

Besoac çaduzcatela
Airean alchatuac,
Amec ekhartcen cituzten
Aitcinerat escuac.
O burreu cruelac! ama

Nigarxuec diote:
Helaz gure haur gaichoec
Cer gaizki egun dute?
Baldin hutsic bada, dituc
Oro gure aldetic,
Eta ez eçagutçaric
Ez duten haurretaric.
Guri iguzkigutçue
Heriozco colpeac,
Eta utz biciric gure
Yaio berri umeac.

Bainan etciren hargatic
Batere gulbelatu,
Aitcitic çuten escua
Haurretarat hedatu.
Hortie tira, handic tira
Hari ciren guduan;
Burreuec tuzte garhaitcen
Amac azken buruan.

Bere harmac tuzte sartcen
Crudelki gorputcean,
Eta haur goichoac uzten
Hedatuac lurrean.
Çaurietaric, currutan',
Çarioten odola,
Ithurritic ur garbia
Ethortcen den beçala.

Ama gaichoac citçaizon
Eman deihadarrari,

Eta, biholçac çaurthurie,
Ossoki nigarrari.
O haur maiteac, cioten,
Bere damu minean,
Ochala! hil bacinete
Cuen sor egunean.

Yaio beçain sarri, burreu

Pleitate gabeac
Eman çaituzte lurrera,
Nola brumac loreac.
Ala gu baigare ama
Ongui ondicozcoac
Ikhustez sarraskitan
Helas! gure haurtchoac.

VEXILLA REGIS.

Pasionean eta gurutce sainduaren besta egunetako Hymnoa.

Hymno beraren airean.

ERPEGUE handienaren
Banderac du distiatcen
Yesus Yaineo guiçonaren
Gurutceae du arguitcen.
Guiçonen Creatçailea
Guiçonec han eman çuten,
Yustuen Buruçaguia
Faltiarrentzat ban hil cen.
Lantça crudelaz saihetsa
Han ciöien erdiratu;
Handic gure garbitceco
Odola cen abiatu.
Eguietan cen guertbatu
Orduan Daviten hitz hau:
Yainco handiac cutaz du
Mundu gucia salbatu.
Cur eder, cur arraixua
Cur guciz preciatua,

Gorputz haren hunkiteco
İçan çare hautatua.
Çure besoetan egon da
Gure Yesus itçatua,
Orai da exai gaichtoa
Çure bidez bentçatua.
Çutan dugu esperantça,
O gurutce sacratua!
Ceren den mundu gucia
Cutaz erresketatua.
Berthutean çucemoçu
Yustuari abantçua,
Gambia çacu onerat
Bekhatoros ohitua.
Eskerrac, Trinitatea,
Darozkitçugu bihurtzen,
Gurutceaz erosiac,
Eguiç gal ez gaitecen.

AD CÆNAM AGNI.

*Bazcoco Hymno çaharra, Bazcoetan cantatcen den
hymnoaren airean.*

ARROPA churi, ederra,
Yaun onaren ohoretan
Yende onac, yauntz deçagun.
Boscarioz, Bazcoetan.

Athera garenaz gueroz
Exaien escuetaric,
Yainco guïconac tuela'
Eskerrac guciataric.

Haren gorphutz sacratua,
Hilic lantçaz cilhatua,
Aldarean da bicia,
Yaunari contsecratua.

Harc gaitu, Bazco bez-
peran,
Arimac urricalduric,
Amulxuki beguiratu
Faraonen colpetaric.

Christo da gure Bazcoa,
Bildotz, notha gabecoa,

Gure gatic, gurutcean,
Sacrificatu Vaincoa.

Ostia miragarria,
Sathanen Centçatçaila;
Çu çare, Yesus maitea,
Gure consolatçaila.

Christo bizten den ordutic,
Ifernua da cerratcen,
Eta, gure fagoretan,
Parabissua çabaltcen.

Gauça gucien autora,
Ceren den Bazco dembora,
Bician eta hilean,
Othoi, gaitçatçu fagora.

Bethiereco loria
Eman bekio Aitari,
Seime, hilic phiztuari
Izpiritu sainduari.

XIII NOELA.

YESUSEN PHIZTEAREN GAINLEAN.

PHIZTU da lorios
Yesus hilien artetic,
Igan bictorios
Cerura gure gatic;
Eta ni munduan
Hila bekhatuan.
O heriotce tristea,

Bekhatutan bicitcea!
Nic ere nahi dut,
Yauna, çurekin phizte,
Bethi nahi çaitut
Orai danic maitatu:
Uztendut mundua,
Arras bekhatua;

Ez, ez dut nahi biciric
Çu cerbitçatceco baicic.
 Bekhatoros nintcen,
 Ondicozeo çorthea!
 Orai naiz aurkhitcen
 Çurekin, Yaun maitea :
 Çu çaitut bilhatcen,
 Bakharrie maitatcen ;
 Biciaz çait gabetcea
 Çure ganie urruntcea.

Cein naicen flacoa
 Miletan dut frogatu ;
 Bai eki, Yaun goicoa,
 Mais çaitut offentsatu.
 Bethicotz naiz galtcen,
 Ez baçaizkit heltcen,
 Mundua çait nausituren,

Laster nau escuraturen.
 On bada munduan
 Çuri yarraikitcea ;
 Leguez da, ceruan
 Hobe çu landatea :
 Han sarturen dena
 Da dohaxuena.
 Oi! noiz naiz harat helduco ?
 Noiz naiz çutaz goçatuko ?
 Ussoa beçala
 Noiz naiz hegaldaturen ,
 Noiz naiz berehala
 Çu ganat hedaturen ?
 Gaizkiac uzteco ,
 Çurekin phizteco ,
 O Yesus! ene gucia ,
 Othoi, indaçu gracia.

AMANDA ONORABLIA.

MAYESTATE adoragarria, ceruaren eta lurraren Creatçaire eta Yabe soberanoa, guiconen eta Aingeruen Erregue eta Monarka guciz puchanta; huna non naicen criminel bat beçala çure contra eguin ditudan nombre gabeco bekhatuez misericordia humilki galdeguiteco, eta bereciki amodiazco Sacramendu huntan eguin dauzkitçudan afruntu handiez doloreric minenarekin Barkhamendu escatceco.

Bai, ene Yauna eta Yaincoa, bihotça dut doloreric minenaz çaurthua; ceren çu, o ontasun soberanoa! hain antsicabeki ahantci, eta hain ingratki offentsatu çaitudan. Ahantzçatçu, o Salbatçaire amultsua! ene crima eta hoben guciak; orhoit çaitie, othoi, çure misericordia handiaz eta çure tormenta guciez. Ez naçacula puni çure coleran ene bekhatuen arabera; bainan trata naçaku çure samurtasun mugarrigabearen arabera: urrical bekiçu, Yesus dibinoa, çure odol preciatuaren gostuz erosi duçun ene arima.

Humilki aithorteen dut, o Yainco handia! ez naicela gai ene baitharic eguin däuzkitçudan ofentsa handien erreparatceco, ordean çure Seme Olibetaco baratcean, humiliatuaren amoreac gatic, barkha dietçadatçu ene hoben guciak; ez deçaçula

arbuiā ene bihotz dolorez çaurthuaz bethico egiten dautçudan sacrificio ossoa. Promes emaiten darotçut, Yauna, conduit berri batez erreparatuco ditudala ene bici pasatuco falta guciac; eta orai artean offentsatu çaitudan beçala, hemendic aitcina, çure graciarekin batean, cu bakharric maitatuco, ohoratuco eta cerbitçatuco çaitudala: ez deçaçula, othoi, permèti behinere ahantz, edo biztatic gal deçadan egun guiconen eta Aingueruen presentcian, çure aldareen oinetan, emaiten darotçudan promes handia. Halabiz.

FINA.

BAYONAN, CLEZEAE Baithaco Imprimerian.

L.R. 59.



